



Sistematizazioaren abentura

Nola ikasi gure praktiketatik
praktika horietatik abiatuta



ALBOAN



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTeko LANIKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Universidad de
Deusto

Deustuko
Unibertsitatea

Instituto de
Derechos Humanos
Pedro Arrupe

Pedro Arrupe
Giza Eskubideen
Institua

Laguntzailea:



INCYDE

Babesleak:




ESTADÍSTICA Y EL GARANTE
GARANTIA SARRA
Gizarte Garapen Babesaren
Departamentua / Ministerio de
Desarrollo Económico y Empleo

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
SERVICIOS SOCIALES
Ministerio de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideen, Enplegarako eta Gizarte- eta Inklusio Sozial
Departamentua / Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social



Sistematizazioaren abentura

Nola ikasi gure praktiketarik
praktika horietatik abiatuta



Argitaratzaileak: ALBOAN, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Hegoa.

Egileak: ALBOAN, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo,
Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Hegoa.

Itzulpena: Elhuyar.

Diseinua: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-3050-06



Aurkezpena

1. Sarrera	5
2. Aurkezpena	6
3. Sistematizazioaren abentura	7
4. Sistematizazioaren ibilbidea	8
1. Pausoa: Abiapuntua	9
2. Pausoa: Hasierako galderak	18
3. Pausoa: Bizitako prozesua berreskuratzea	25
4. Pausoa: Sakoneko hausnarketa	49
5. Pausoa: Helmugak	60
6. Pausoa: Gure irakaspenak komunikatzen	68
7. Pausoa: Ezagutza osatu eta lantzea	74
5. Gure abentura berezitik ateratako hausnarketa eta irakaspen batzuk	78
Esperientzian parte hartu duten erakundeen helbideak	80
Proiektua osatzeko materialak	81

1. Sarrera

Duela urte batzuk, proiektu honetaz arduratzen garen hiru erakundeek (ALBOAN, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua eta Hegoa) lan hau argitaratu genuen: “Sistematizazioa: begiratu berri bat gure praktikei. Gizarte-aldaketari buruzko esperientziak sistematizatzeko gida”. Gida horren bidez, lehenengo hurbilketa egin nahi genuen gure errealitatetik abiatutako sistematizaziora.

Orduz geroztik, lanean eta, batez ere, sistematizatzen aritu gara. Azkeneko hiru urte hauetan, herritarren parte-hartzeari buruz Euskal Herrian, Valentzian, Costa Rican eta Kolonbian egindako hamar esperientziaren sistematizazio-prozesuan parte hartu dugu, beste erakunde batzuekin batera. Ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiegu esperientzia bakoitzaren alderdi guztiak banan-banan sistematizatu dituzten bederatzi erakundeei, beren konfiantzagatik, laguntzagatik eta parte-hartzeagatik: Asociación de Mujeres del Oriente (AMOR, Kolonbia), Bidegintza Elkartea (Euskal Herria), Bizkaiko Cáritas (Euskal Herria), Centro de Estudios y Publicaciones Alforja (Costa Rica), Colectivos del Parke (Valentzia), Cooperativa Copevisa (Kolonbia), Elhuyar Aholkularitza (Euskal Herria), Escuela Popular Claretiana (Kolonbia), Munduko Emakumeak Babel (Euskal Herria). Baina erakunde horiek egindako ahaleginek ez lituzkete hainbat argitalpenetan aurkezten ari garen emaitzak izango, erakunde horiekin batera hainbat lekutan lan egin duten beste hiru erakunderen laguntzarik eta aholkurik gabe. Hauek dira hiru erakunde horiek: Centro de Estudios y Publicaciones Alforja (Costa Rica), Dimensión Educativa (Kolonbia), Iniciativas de Cooperación y Desarrollo (Euskal Herria). Egindako lanari esker, herritarren parte-hartzeari buruzko hamar esperientziaren sistematizazioak, herritarren parte-hartzeari buruzko lan bat eta gida hau argitaratu ditugu¹.

¹ Material horiek nahi izanez gero, eskatu proiektuaren erakunde sustatzaileei.



2. Aurkezpena

Argitalpen berri hau egiteko, herritarren parte-hartzeari buruzko hainbat esperientziaren sistematizazio-prozesuei jarraipena egin diegu, eta esperientzia horren emaitza da hemen aurkezten dugun lana. 'Sistematizazioa' hitzak zabal bezain ezaguna izaten jarraitzen du guretzat. Sistematizazio-prozesuak aukera ematen digu geure praktikei begiratzeko, geure praktikak berreskuratu eta aztertzeke eta geure praktiketatik ikasteko. Prozesu horrek jarraibideak eta irizpideak ematen dizkigu hurrengo esperientzietarako, baina malgutasunari eta sormenari leku handia utziz.

Hala, argitalpen honen bidez, lehen argitaratutako gida osatu nahi dugu, herritarren parte-hartzeari buruzko esperientziak sistematizatzeko egin ditugun hausnarketekin eta landu ditugun esperientzia eta teknikekin.

Gure ustez, sistematizazio-prozesu batean murgilduz gero, bi gidak eduki behar dira, biek informazio osagarriak dituztelako. Beharrezkoa da, adibidez, sistematizazioa ulertzeko modu desberdinak ezagutzea –lehenengo gidan agertzen dira–, sistematizazioa nondik datorren, eta gure sistematizazioaren bidez, zer egin nahi dugun jakiteko. Alde horretatik, lehenengo gida horretan informazio garrantzitsua ematen da gida honetako lehenengo pausoak emateko.

Halaber, gida honetan gehiago garatuta ageri dira aurreko gidan aipatutako azken puntuak, eta hainbat erakunderen esperientzia zehatzak ere azaltzen dira.

Beraz, hemen dituzu zenbait jarraibide eta gomendio, zure esperientziak ezagutu eta horietatik ikasteko abenturan murgiltzeko eta, horrez gain, zure erakundeko, beste erakunde batzuetako eta alor

Gida honek sistematizazioari buruzko jarraibide labur batzuk ematen ditu, eta horrelako prozesuetan eman beharreko pausoak azaltzen ditu. Gainera, pauso horietako bakoitzaren gakoak, gomendioak eta aholkuak agertzen dira, esperientzian oinarrituta, eta aipatutako erakundeek erabiltzen dituzten teknika batzuk ere bai.

Azkenik, gidaren amaieran, sistematizazio-prozesuei buruzko praktiketan oinarritutako zenbait hausnarketa eta iritzi ematen dira, baita esperientzian parte hartu duten erakundeekin harremanetan jartzeko helbideak ere.

3. Sistematizazioaren abentura

Globalizazioaren testuinguruan giza garapenaren eta gizarte-aldaketaren alde egiteko, beharrezkoa da gure praktikak etengabe aldatzea eta egokitzea. Baina aldaketa horiek egiteko, egindako lanari buruz hausnartu behar da eta lan horri buruzko iritzi kritikoa izan behar da. Alegia, aurretik izandako esperientziak gure praktikak hobetzeko erabili behar ditugu.

Gizarte-zientzien erronka izan da beti erakundeen prozesuak ulertzea, eta, oraindik ere, jende askoren lanean eta bizitzan eragina duen arazoa da. Gida honetan aurkezten den proposamen metodologikoa lagungarria izan daiteke erakundeok martxan jartzen ditugun prozesu sozialak eta praktikak hobeto ulertzeko. Eta, ez soilik ulertzeko, baizik baita beste praktika batzuekin batera aztertze eta ikasketa berriak sortze ere.

Hala, gida honetan azaltzen den proposamen metodologikoak aukera ematen du:

- ◆ Gure praktikaren **berrikuspen bateratua eta partekatua** egiteko.
- ◆ Praktika aurrera eman dutenek egindakoa **bereganatzeko**.
- ◆ Zerbait berria **ikasteko**.
- ◆ **Proposamen eta agenda berrietarako** jarraibideak lortzeko.
- ◆ **Ezagutza berriak sortzeko**, eta hala, hausnarketak eta arlo akademikoa praktika zehatzekin lotzeko.

Ikasketa eta ezagutza berri horiek lortzeko, erakundeek ahalegin handia egin behar dute, dudarik gabe. Sistematizazioaren abenturan murgiltzeko, ibilbide bati ekiteko nahia eduki behar da, baina ez da beharrezkoa ibilbide horrek zer bidetatik eramango gaituen eta zer arazo sortuko dituen argi eta garbi jakitea.

Edozein modutan, gogoratu behar dugu guk geuk izan behar dugula abenturaren protagonistak, eta abentura horretan aurrera egin ahala, behar diren erabakiak eta norabideak hartu ahal izango ditugu, helmugara iristeko.

4. Sistematizazioaren ibilbidea

Segidan, sistematizazioaren pausoak azalduko ditugu. Pauso horiek kronologikoki ordenatuta daude, eta sistematizazio-prozesuan aurrera egiteko laguntza eta jarraibideak ematen dituzte.

Hala ere, prozesu sozialek erakusten duten bezala, ibilbide hori ez da ondo seinaleztatutako errepide lau eta erraza. Aitzitik, atzera egiten du zenbaitetan, ondo markatu gabeko mugak ditu, baita bidezidor eta galbideak ere. Baina esperientziak erakutsi digu sistematizazioaren abenturan ezer ere ez dagoela alferrik, eta prozesua amaitzean, egindako bidearen pauso guztietatik ikasi ahal izango dugula.

Edozein modutan, gogoratu behar da, sistematizazioaren bidez, taldeak –bakarrik edo beste pertsona batek lagunduta– hausnartu, ordura artekoa zalantzan jarri, ikasi eta ondorengo praktiketarako jarraibideak adosten dituela.

Ez dago “errezetarik”. Proposamena irekia eta malgua da, eta talde bakoitzari egokitu behar zaio, esperientziaren, denboren, baliabideen... arabera. Hala, gure praktikak hobetzeaz gain, parte hartzen duten pertsona guztiek aukera izango dute ikasteko eta ahalduntzeko.

Horrekin guztiarekin, gure gizarte-ekintza hobetzea espero dugu, gure lankideak ahalduntzea eta, halaber, mundua aldatzen laguntzea.

1. pausoa: Abiapuntua

Bizi, interesa azaldu, gaira hurbildu eta erabakia hartu

Bizi

Begien bistakoa iruditu arren, funtsezkoa da aurretik esperientzia bizi izatea. Lehenago bizi izan ez badugu, ezinezkoa da sistematizatzea. Dena den, gerta daiteke, ibilbidearen abiapuntu gisa, biziko dugun esperientzia bat, alegia, oraindik gertatu ez dena sistematizatu nahi izatea. Hala, sistematizazio-prozesua prestatu ahal izango dugu, eta ondoren aplikatu. Nolanahi ere, esperientzia bizitzea beharrezkoa da sistematizatu nahi bada.

Interesa azaldu

Arrazoi batengatik edo besteagatik interesgarria iruditzen zaigun esperientziaren bat badugu edo esperientzia horretatik asko ikas daitekeela iruditzen bazaigu, badugu beste funtsezko elementu bat. Oso garrantzitsua da parte hartzen dutenek ikasteko nahia edo interesa izatea, esperientziaren garapena teknikoagoa izateko eta sistematizazioaren abenturan motibazio handiagoa izateko.

Gaira hurbildu

Batzuetan, esperientzia garrantzitsuak izan arren, ez dugu jakiten zer egin esperientzia horiekin. Zenbaitetan, esperientziari buruzko dokumentu garrantzitsuenak berreskuratzea interesatuko zaigu, beste batzuetan, esperientzia gogoratu eta ospatzea, edo bestela, esperientzia ezagutu, gogoratu, aztertu, eta horretatik ikastea. Horregatik, sistematizazioa zer den jakin eta bilatzen ari garena zer den zehaztu behar dugu. Gerta daiteke, adibidez, esperientzia bat sistematizatu nahi dugula uste izatea, baina, benetan, informazioa biltzearekin nahikoa izatea (edo, behintzat, gehien ustez, horrekin nahikoa izatea). Horregatik, pauso hau ematen denean, beharrezkoa da:

◆ Sistematizazio-prozesua zer den jakitea.

Sistematizatuko dugunok harremanetan jarri behar dugu sistematizazioaren ideiarekin. Elkarrekin hausnartu behar dugu sistematizazioarekin esan nahi dugunari buruz, ibilbide horretan emango ditugun pausoei buruz... Sistematizazioaren ideia hurbiltzeko, prestakuntza-tailer bat, bilera bat... egin daiteke, bakoitzak sistematizazioari buruz dakiena edo uste duena azaldu, eta elkarrekin, ikuspegi guztiak aberastu eta zabalitzeko. Prozesuarekin ilusioa izateko unea da, prozesua bereganatzen hastekoa.²

² Une honetan, aurreko argitalpenean agertzen den materiala erabil daiteke. Bai inprimatutako materiala, bai CD-Cardean dagoena.

◆ **Sistematizazio-prozesuarekin zer espero dugun galdetzea geure buruari.**

Parte-hartzaile bakoitzak sistematizazio-prozesuarekin zer lortzea espero duen identifikatzea eta gainerako taldeki-deen iritziekin alderatzea garrantzitsua da, geure buruak eta gainerakoak kokatzeko eta ezagutzeko. Galdera hori egin denean, ideia desberdin asko atera ohi dira. Ideia horietako batzuk zerikusia izaten dute bizitako esperientziarekin, beste batzuk alderdi pertsonalagoekin, sistematizazio-metodoarekin... Horrelakoetan, bakoitzaren itxaropenak gaika ordenatzea komeni da. Horrela antolatuz gero, hobeto emango ditugu hurrengo pausoak. Dena den, orain irekitzeko unea da, eta sistematizazioan parte hartuko dutenen zalantzak, kezkak eta lehentasunak entzun behar dira. Geroago erabaki eta zehaztu beharko da sistematizazioa zertan oinarrituko den.

Erabakia hartu

Galderak argitu eta taldearen itxaropenak azaldu ondoren, erabaki bat hartzeko unea da. Hala, sistematizazioa egiteko erabakia, gure historiari buruzko memoria egiteko erabakia... har daiteke.

Dudarik gabe, erabaki hori hartzean, zer esperientzia sistematizatu nahi dugun eta zertarako sistematizatu nahi dugun jakin behar dugu, gutxi gorabehera. Beharbada, erabakia hartzen dugunean, irudituko zaigu guztia benetan dagoena baino argiago dagoela. Dena den, prozesuan zehar, egin beharreko zehaztapenak egin ahal izango ditugu eta sortzen diren galderari erantzun ahal izango diegu.

Konturatu behar dugu hartutako erabakiak eragin eta ondorio jakin batzuk izango dituela erakundeetan. Sistematizazio-prozesua aurrera eramateko, denbora eta pertsonak behar dira, erakundeen konpromisoa behar da, ikasteko borondatea eduki behar da eta gure praktikak zalantzan jarri behar dira.

Prozesuarekin aurrera egitea erabakiz gero, beharrezkoa da:

- ◆ **Talde sistematizatzailea osatzea.** Prozesuaren eragilea izango da, eta gainerakoak parte hartzera bultzatu beharko ditu.
- ◆ Prozesuari eskaini nahi diogun denbora gutxi gorabehera zehaztea.

Sistematizazioaren abenturaren barruan, ilusioaren, ametsen eta arriskuaren unea da hau.



Funtsezko elementua

- ◆ Esperientzian parte hartu izatea.
- ◆ Esperientzia horretatik ikasteko borondatea izatea.
- ◆ Sistematizazio-prozesu bat egin nahi izatea.



Gomendioak

- ◆ Jendearen itxaropenak jaso, eta prozesu guztian itxaropen horiek kontuan izatea.
- ◆ Motibatze eta prozesua geureganatzeko unea da (prozesuari edo une bakoitzari izena jarri diezaiokegu, adibidez).
- ◆ Sistematizazioaren talde eragilea osatu, eta denborak zehaztea, adibidez, prozesuaren hasierako eta amaierako data jarritz.
- ◆ Sistematizazio-prozesuan zehar gertatzen denaren erregistroa egitea.

Iruzkina

Funtsekoa da baliabideak esleitzea eta pertsonen eta erakundeen laguntza jasotzea.

Beharrezkoa da erakundearen zereginari buruzko hurbilketa kritikoa egitea.

Erakundeak edo erakundeko ahalik eta pertsona gehienek proiektua bere egitea funtsekoa da prozesua ondo garatzeko.

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Munduko Emakumeak Babel

Jardueraren izenburua:

Talde-laneko saioa... Munduko Emakumeak erakundearen esperientziaren sistematizazioa: egin daiteke ala ez?

Helburua:

- **Helburu orokorra:** Munduko Emakumeak elkartearen lan-esperientziaren sistematizazio-prozesua has daitekeen aztertzea.
- **Berriazko helburuak:** Sistematizazio-kontzeptua azaltzea eta elkarrekin bere kontzeptu propioa sortzea. Jarduera zergatik eta zertarako egiten den identifikatzea. Sistematizazioan lan egiteko konpromisoak lortzea.

Garapena:

Sistematizazio-batzordeak dinamizatu zuen jarduera, eta erakundearen batzarrak hausnarketa egitea proposatu zuen.

1. **Jardueraren aurkezpen orokorra egitea eta helburua azaltzea.**
2. **Taldeak sistematizazio-kontzeptua sortzea, kontzeptu teoriko-akademikora hurbiltzeko.**

Parte-hartzaileei orri zuriak eta boligrafoak banatu genizkien. Ondoren, "sistematizazio" hitza entzutean burura zetorkien lehenengo gauza idazteko eskatu genien.

Gehienek "antolatu" eta "ordenatu" hitzekin lotu zuten. Hala, ikusi ahal izan genuen, intuizioz, "sistematizazio" terminoaren ideia egokia zutela.

Ondoren, orri hori batzuk erakutsi genizkien, mundu akademikoak emandako sistematizazio-kontzeptuaren definizio labur batzuekin. Hala, ondorioztatu genuen sistematizazioaren definizio teorikoaren ezaugarri nagusiak aipatu zituztela parte-hartzaileek.

3. ¿Zergatik eta zertarako sistematizatu?

Bi talde handi egin genituen, eta horietako bakoitza beste bi taldetan banatu genuen. Bi taldek *zergatik sistematizatu?* galdera landu zuten, eta beste bik *zertarako sistematizatu?* galdera.

Zergatik sistematizatu? galderari erantzun behar zioten bi taldeek esan zuten beharrezkoa zela ideiak antolatzekeo prozesu bati ekitea, elkartearen historia eta errealitatea jasotzeaz gain, parte-hartzea indartzeko eta elkarrekin pertsonen artean harreman gehiago eta hobeak sortzeko.

Zertarako sistematizatu? galdera landu zuten bi taldeek, ostera, "berrikuspena", "hausnarketa" eta "esperientzietatik etengabe ikastea" aipatu zituzten sistematizazio-prozesua hasteko arrazoi nagusi gisa.

4. Zergatiaren eta zertarakoaren zehaztapen "teorikoagoa".

Parte-hartzaileei fitxa batzuk erakutsi genizkien, teorialarien arabera, sistematizazio-prozesuak zergatik hasi behar diren eta zertarako balio duten labur azaltzen zutenak. Teoriak esaten duenaren eta taldeek azaldu zutenaren arteko kointzidentziak azpimarratu genituen.

5. Azken hausnarketa. Bilgunea.

Saioaren helburuak berriz aipatu genituen, eta ondoren, parte-hartzaile guztiak ados jartzen saiatu ziren.

Bi funtsezko galdera hauek landu genituen:

- ◆ Munduko Emakumeak erakundearen esperientziaren sistematizazio-prozesuari ekin nahi diogu ala ez?
- ◆ Hiru erakundeek zuzendutako proiektuaren barruan ala gure erritmoan egin nahi dugu sistematizazioa?

Botazioa egin genuen, eta lehenengo galderari BAIEZKOA eman zioten.

Bigarren galderari erantzuteko, berriz, ALBOANeko ordezkari batek azalpenak eman zituen hainbat erakundek duela urte bete hasitako proiektuei buruz, proiektu horien abantailei eta desabantailei buruz eta proiektu horretan sartzeak Munduko Emakumeak elkarteari sortuko lizkiokkeen erronkei buruz.

Azalpena eman eta zalantzak argitu ondoren, batzarrak proiektuan barneratzea erabaki zuen. Bestalde, sistematizazio-prozesuaren metodologiari eta herritarren parte-hartzeari buruzko hasierako prestakuntza jasotzea eskatu zuen, sistematizazio-prozesu honetan parte hartzen duten erakunde guztien abiapuntua baita. Azkenik, lanerako agenda bat zehaztu genuen, aurreikusitako helburuak betetzeko.

Beharrezko materialak:

- ◆ Orriak, boligrafoak eta koloretako kartoi meheak.

Denbora:

- ◆ Emakumeak Munduan elkartearen astelehenetako batzarraren iraupena (bi ordu inguru).



Oharrak:

Ordoren egin zen saio batean, “kolore-sorta” izena jarri zioten sistematizazio-prozesuari, parte-hartzaile guztien artean, eta prozesuko pauso bakoitzari ere izen bat eman zioten.

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Bidegintza Elkarte

Jardueraren izenburua:

Sistematizaziora hurbiltzen.

Bidegintzan egin ohi dugun bezala, bi pertsona liberatu genituen sistematizazio-proiektu/prozesua zuzentzeko eta dinamizatzeke. Prestakuntza-tailer bat eta bi eragile horiekin egindako bileraren bat edo besteren ondoren, talde guztiari ikasitakoa eta aurreratutako azaldu genion, murgilduta geunden sistematizazio-prozesua partekatzeke, geureganatzeko eta prozesu horretan parte-hartzeko.

Iruditzen zitzaigun ezinbestekoa zela talde guztia bilera dinamiko batean biltzea, azalpenak ematearekin batera, iritziak azaltzeko, itxaropenak aztertzeke eta adostasunak lortzeko.

Prozesu guztiz berria zenez, beharrezkoa zen, halaber, euskarri grafiko argi eta erakargarria edukitzea. Taldeak "sistematizazio" kontzeptura egiten zuen lehenengo hurbilketa zen, eta gogoz geunden "taldea irabazteke". Lehendik ere, koordinazio-sareke lanez eta konpromisoz beteta zegoen taldea. Beraz, lagungarria izan zitekeen edozer ondo etorriko zitzaigun.

"Teknikaren" helburua:

- Bidegintzako profesional-taldea sistematizazio-prozesura/metodora hurbiltzea.
- Guztion artean itxaropenak partekatu eta erabakiak hartzea, zer esperientzia partekatu behar den eta hori nola eta noiz egin behar den zehazteke; alegia, helburuaren-objektuaren eta ardatzaren gainean hausnaritzea eta erabakitzea.

Garapena:

1. Kolorez betetako dokumentu bat sortu genuen Power Point-en (PPT), irudi askorekin eta letra gutxirekin. Bi eragileek dokumentu hori erabili zuten sistematizazio-prozesuaren oinarritzko kontzeptuak eta tresnak taldeari azaltzeko.
2. Bilera bat egin genuen. Bi eragileek dinamizatu zuten bilera, eta sistematizazio-prozesua aurkezteaz gain, taldeko beste profesionaleri aukera eman zieten beren galderak, itxaropenak, kezkek, ekarpenak... azaltzeko.
3. Bileraren lehenengo zatian, sistematizazioa zer den azaldu genuen modu ordenatu eta formalean, Power Pointeko dokumentuaren laguntzarekin. Prozesu guztiz berria zenez, taldeak denbora behar zuen edukiak barnertateke. Taldekideek hainbat galdera egin zituzten, eta dinamizatzaileok erantzun genituen.
4. Ondoren, sistematiza zitezkeen esperientziei buruz hitz egiten hasi ginen, ñabardunak eginez, ikuspegiak azalduz, epeak zehaztuz..., modu informalean. Denbora gutxian, bilera-mahaia kartekez, argazkiz eta pasadizoz bete zen, eta oroitzapen atseginak eta elkarrekin bizi izandako hainbat une gogora ekarri zizkiguten. Baina, orduan, zehazteke eta mugak jartzeko arazoak sortu ziren, "dena sistematizatu" nahi baikenuen...
5. Bileraren bigarren zatian, kanpoko bi bideratzaile (herritarren parte-hartzeari buruzko esperientzien sistematizazio-proiektuen arduradunak) deitu genituen. Hain zuzen, pertsona horiek eman zieten prestakuntza Bidegintzako bi eragileei, eta sistematizazio-prozesu guztian ere jasoko genuen horien laguntza.

Gure itxaropenak eta sistematizazioari eskain geniezakeen denbora kontuan hartuta, ideiak ordenatu genituen bideratzaileen laguntzarekin, "zer sistematizatu nahi

genuen” (objektua), “zertarako sistematizatu nahi genuen” (helburua) eta “zer ikuspegi erabili nahi genuen” (ardatza) zehazteko. Talde handian, aurreraturako lana eta oraindik egiteko zegoena egituratu genuen, papelografoekin eta koloretako errotuladoreekin, galdera ireki baina zehatzen bidez eta ideia-jasen bidez.

6. Bidegintzako bi eragileok erabakiak zehazteaz arduratu ginen, saio hartan eman genituen pauso garrantzitsuak oinarritzat hartuta, sakontzen eta ñabardurak egiten joateko.

Beharrezko materialak:

- ◆ Aukezpenerako Power Point-a.
- ◆ Papelografoa.
- ◆ “Sistematizazioa: begiratu berri bat gure praktikei. Gizarte-aldaketari buruzko esperientziak sistematizatzeko gida”.

Denbora:

- ◆ Lau orduko lanaldia. Lehenengo zatian, Bidegintzako talde guztiak parte hartu zuen, eta bi ordu iraun zuen. Hurrengo zatia ere bi ordukoa izan zen, eta taldeaz gain, kanpoko bi bideratzailek parte hartu zuten.

Itxaropen-zerrenda

- ◆ Esperientzia honek erakunde murgilduta dagoen beste prozesu batzuei laguntzea edota horiek osatzea.
- ◆ Gehiegizko lanagatik ez itotzea, proiektu hau dela-eta.
- ◆ Gaizki ateratako esperientziak sistematizatzea, ikasi ahal izateko.
- ◆ Ondo ateratako esperientziak sistematizatzea, indartzeko; “eginbeharrez” ez betetzea; “lehen bagenekien, baina orain ez dakigun” horretan arreta jartzea, eta ez hainbeste egin ez dena eta egin beharko litzatekeena jasotzen.
- ◆ Polita litzateke Bidegintzaren 15 urteko historian egin dena sistematizatzea (adibidez, komunitatearen arloan egindakoa).
- ◆ Baina gauzak zehaztu beharra dago..., beraz, Bidegintzaren barneko esperientziaren bat sistematiza genezake. Adibidez, nahikoa datu bilduta dituen esperientziaren bat, Bidegintzako egungo profesional-taldearen gehiengoak parte hartu duena.
- ◆ Ez litzateke interesgarriagoa izango kanpoko esperientziaren bat, pertsona edota erakunde gehiagoren parte-hartzea izan duena, sistematizatzea?
- ◆ Erakunde eragileek sistematizatu beharreko esperientzian duten parte-hartzea aztertzea interesgarria da. Baina, Bidegintzak pertsonekin lan egiten duenez, zergatik ez dugu hobeto aztertzen sistematizatuko den esperientzia horretan gure auzoetako herritarrek izan duten parte-hartzea?
- ◆ Edo, are errazago, sistematizatuko den esperientzian gure erabiltzaileek izan duten parte-hartzea azter dezakegu, gehiago zehazteko eta sinplifikatzeko.

Oharrak:

Azkenik, honela laburtu ziren azaldutako itxaropenak:

HELBURUA: “Hainbat erakunde komunitate-prozesuetan parte hartzera bultzatzeko moduz berriz hausnartzea”.

OBJEKTUA: “Bilboko Zazpi Kaleetako adingabe eta gazteentzako aisialdiko guneak eskatzeko prozesua, 2002 eta 2004 artean”.

ARDATZA: “Erakundeen parte-hartzea errazten eta zailtzen duten elementuak”.

2. pausoa: Hasierako galderak

Zertarako, zer eta zer ikuspegitatik

Sistematizatzeko erabakia hartzeko, esperientzia bat identifikatu dugu eta sistematizazio-prozesuarekin lortzea espero duguna adierazi dugu. Intuizio eta nahi horiek zehazteko unea da orain.

Pauso hau ematea asko kostatzen da, zaila egiten delako gauzak “kanpoan” uztea, dena garrantzitsua iruditzen zai-gulako. Batzuetan, zerbait galtzen ari garela ematen du, zehaztapen horiek egitean jauzi bat ematen ari garela. Baina, esperientzia bat sakon ezagutzeko, beharrezko da aztergaia ondo mugatzea. “Sobera hartzen duenak gaizki tinkatzen du” dio esaera zaharrak, eta hori gogoratu behar dugu une honetan. Alegia, ondo zehaztu behar dugu aztertu behar duguna, eta ez diogu beldurrik izan behar dena ez agertzeari. Azken finean, gure esperientziei edozein ikuspegitatik begiratuta ere, funtsezko elementuak beti agertzen dira. Geroago ikusiko dugun bezala, oso esperientzia zehatza aztertu arren, hortik ateratako ikasketak beste esperientzia askori –baita beste erakunde batzuetako esperientziei ere– aplika diezazkiekegu.



Hori da, hain zuzen, sistematizazioaren ahalmenetako bat, denboran eta espazioan mugatutako esperientzia batetik beste esperientzia, denbora eta leku batzuetan aplika daitezkeen ondorio eta ikasketak atera ahal izatea.

Berriz ere sistematizazioaren abenturarekin konparazioa egingo bagenu, inbutuaren eta tentsioaren unean gaudela esango genuke; aukerak egin, lehentasunak jarri eta mugak zehazteko unean. Baina, segur aski, aukeratutako alderdi eta uneekin, esperientzia gehiagotan aplika daitezkeen ondorioak aterako ditugu.

Ondoren, sistematizazio-prozesua definitzeko zer galderei erantzun behar zaien azalduko dugu. Grafikoan agertzen den bezala, galdera orokorretatik zehaztutara ordenatuta daude. Hala ere, batzuetan, argi izango dugu zer sistematizatu nahi dugun, baina ez hain argi zertarako edo zein ikuspegitatik egin nahi dugun hori. Beste batzuetan, berriz, ez dugu zalantzan jarriko zertarako sistematizatu nahi dugun, baina ez dugu jakingo zer esperientzia zehatz sistematizatu... Edonola ere, hasierako galdera hauek nahi dugun ordenan erantzun ditzakegu. Galdera horiek gauzak argitzen eta erabakiak hartzen laguntzea da garrantzitsuena.

Zertarako sistematizatu nahi dugu?

Helburua

Zertarako sistematizatu nahi dugun definitzeak sistematizazioaren *helburua* zehazten laguntzen digu. Argi, labur eta modu errealistan definitu behar dugu sistematizazioaren helburua. Taldearen, itzaropenen, unearen, denboraren... **baitan** dago helburu hori.

Lehenago esan bezala, aukera asko daude “zertarako sistematizatu?” galderari erantzuteko. Galdera horri erantzuten badiogu, nola egin behar dugun ere jakingo dugu.

Ez da gauza bera talde baten esperientzia jasotzeko sistematizatzea eta esperientziaren arrakastaren/porrotaren arrazoiak aztertzeko sistematizatzea. Enfasia jartzen dugun lekuaren arabera (metodologiaren definizioan, parte-hartzaileetan...), desberdina izango da sistematizazioaren helburua.



Funtsezko elementua

- ◆ Esperientzia hau zertarako egin nahi dugun jakitea.
- ◆ Sistematizazioaren erabilgarritasuna argi izatea.



Gomendioak

- ◆ Erakundearen egitekoa eta estrategia kontuan hartzea.
- ◆ Pertsonen eta erakundearen interesak eta aukerak kontuan izatea.

Zer esperientzia sistematizatu nahi dugu?

Objektua

Sistematizatu beharreko esperientzia denboran eta espazioan mugatzeaz ari gara. Mugaketa hori helburuaren, esperientziaren, testuinguruaren... arabera izango da.

Sistematizatuko den esperientzia zehatzaren hasierako data eta amaiera-data zehaztea komeni da. Zehazpen horri “sistematizazioaren objektua” esaten zaio.



Funtsezko elementua

- ◆ Sistematizatuko dugun esperientzia aukeratzea.
- ◆ Esperientziaren denbora, subjektuak eta espazioa zehaztea.



Gomendioak

- ◆ Ez da beharrezkoa esperientzia guztia kontuan hartzea.
- ◆ Objektua zehazteko, lagungarria izan daiteke esperientziaren une esanguratsuak, gertaera garrantzitsuak edo une erabakigarriren bat gogoratzea.

Esperientzia horren zer alderdi garrantzitsu sistematizatzea interesatzen zaigu?

Ardatza

Sistematizazioaren *ardatza* zehaztu behar da, hau da, esperientzia zehatz bati begiratzeko erabiliko dugun ikuspegia edo jantziko ditugun “betaurrekoak”. Esperientziari ikuspegi batetik begiratu behar zaio, esperientzia guztia bere konplexutasun guztiekin kontuan hartu nahi ez izateko.

Ardatza modu askotara azal daiteke. Esperientzia bat hainbat ardatzen arabera ere sistematiza daiteke, hori egitea interesgarria izanez gero.



Funtsezko elementua

- ◆ Zer alderdi, dimentsio, faktore eta osagai interesatzen zaizkigun jakitea.
- ◆ Ikuspegi nagusia zehaztea eta ez sakabanatzea.



Gomendioak

- ◆ Esperientzia guztia zeharkatzen duen ardatz nagusia balitz bezala hartzea.

Iruzkinak

Helburuak, objektuak eta ardatzak koherenteak izan behar dute elkarren artean.

Zehazteko beldurrak kendu behar dira, eta, objektua eta helburua definitzean, errealista izan behar da, daukagun informazioa eta denbora kontuan hartuz.

Ematen diren formulazioak une oro zehaztu behar dira, hau da, zertaz ari garen ulertu behar da. Horretarako, lagungarria izan daiteke helburuan, objektuan eta ardatzean agertzen diren hitz garrantzitsuak definitzea, guztiok gauza berari buruz hitz egin dezagun.

Behin eta berriz gogoratu behar dugu “sobera hartzen duenak gaizki tinkatzen duela”.

◇ Hasierako galderak

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Bizkaiko Cáritas. Komunitate-animaziorako taldea

Jardueraren izenburua:

Helburua, objektua eta ardatza erabakitzen.

Helburua:

- Helburua, objektua eta ardatza zehaztea.
- Gure helburua, objektua eta ardatza zehaztea.

Garapena:

1. Helburuari, objektuari eta ardatzari buruzko oinarrizko ideiak aurkeztu eta zalantzak argitu ditugu.
2. Jendeak dituen ideiekin ideia-jasa egin dugu.
3. Ideia-jasa jasa horretan bildutakoak hasieran genituen itzaropenen arabera berrikusi ditugu.
4. Ideiak ordenatu ditugu, helburua, objektua edo ardatza zehazteko duten balioaren arabera.
5. Helburua, objektua eta ardatza erabaki ditugu. Erabakiak hartzeko, gauza batzuk baztertzeko eta beste batzuen alde egiteko arrazoiak eman ditugu. Erabakia guztion artean adostu eta arrazoitu dugu.

Beharrezko materialak:

- ◆ Papelografoa, paper jarraitua, kanpainarako materialak, agendak.

Denbora:

- ◆ Hiru orduko saio bat.

◆ Material osagarria

Helburu, objektu eta ardatz hauek definitu ditugu saioan:

Helburua: Eragileek ezohiko kanpainetan gehiago parte hartzeko tresnak eta metodoak lortzea.

Objetua: Bizkaiko elizbarrutiaren etxebizitza-kanpaina (2003ko ekaina – 2004ko ekaina)

Ardatza: Komunitate-animaziorako taldeak kanpaina horren dinamizazioan duen egitekoa.

◇ Hasierako galderak

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Red Costarricense de Control Ciudadano (CEP-Alforja)

Jardueraren izenburua:

Helburua, objektua eta ardatza zehazten.

Helburua:

- Red Costarricense de Control Ciudadano erakundearen esperientziaren helburua eta ardatza modu adostuan definitzea.

Garapena:

2004ko otsailean, Social Watch-en gai nagusi bihurtu zen CEP Alforja. Gainera, Milurtekoko Garapen Helburuei (MGH) buruzko gobernuen txosten nazionalean eragina izan nahi zuten 14 erakundek egindako prozesuaren eragilea izan zen CEP Alforja erakundea. Hala, 2004ko azaroaz geroztik, "Pobreziak ez du aitzakiarik Costa Rican" kanpaina jarri zen martxan, Red Costarricense de Control Ciudadano erakundea antolatzeke ekintza-esparru bihurtzeko helburuarekin.

Esperientzia hasiberria zenez, nazio-mailako elementuak, gizarte-erakundeekin izandako harremanen aurrekariak eta CEP Alforjak zituen nazioarteko harremanak baliatu ziren erakundeen sare bat sortzeko ideiarri bultzada emateko. Costa Ricako politika publikoen gaineko herritarren kontrolaren eragile izan nahi zuen sare horrek.

1. Hala, Herritarrek Parte Hartzeko Programaren bidez definitu ziren, hasieran, helburua, objektua eta ardatza, programa hori baitzen aipatutako prozesuaren eragilea.
2. Hala ere, proposamenaren berri eman zieten erakundeei, eta haiek oniritzia eman zioten.

Beharrezko materialak:

- ◇ Posta elektronikoa.

Denbora:

- ◇ Bi orduko saioa lanak prestatzeko, eta ordu beteko saioa Sarean parte hartzen duten erakunde guztiekin.



Material osagarria

Helburu eta ardatz hauek definitu ziren esperientzia honetan:

Sistematizazioaren helburua: Gizartearen ikuspegitik, herritarren esperientzia honek politika egiteko modu berriari buruzko hausnarketari egindako ekarpenak berreraikitzea eta horiei buruzko hausnarketa kritikoa egitea.

Sistematizazioaren ardatza: Herritarren Kontrolerako Sareak garatutako gaitasunak eztabaida kritikoko prozesuei, zaintzari eta eragin politikoari buruz.

Oharrak:

Kasu honetan, hasieratik argi zegoen objektua: herritarren kontrolerako Costa Ricako sarea sortzea. Beraz, helburua eta ardatza definitu behar ziren.

3. Pausoa: Bizitako prozesua berreskuratzea

Berreraiki eta ordenatu

Pauso hau emateko egin beharreko lana oso erakargarria eta atsegina da. Kasu gehienetan, lan hori oso modu sortzailean egiteko baliabideak izaten ditugu erakundean.

Bizitako prozesua taldeko parte-hartzaile guztien artean berreskuratzeak motibazioa eta indarra eman diezaioke sistematizazio-prozesuko parte-hartzeari. Egindakoa aitortzeko unea da, eta esperientzia hori bizi izan dutenek hausnartzeko unea.

Baina, askotan, denbora eta ahalegin gehiegi xahutzen ditugu, eta ez zaigu indarrik eta denborarik geratzen ondorengo pausoak emateko.

Beraz, abenturaren zati honetan arkeologia-lanak egin behar ditugu, baina, aldi berean, indarrak neurtu behar ditugu datorrenerako prest egoteko. Gure historia berreskuratzeke arkeologia-lan horretan, bi elementu garrantzitsu azpimarratu behar dira:

Historia berreraikitzea

- ◆ Modu batean ala bestean gure esperientzia markatu duten uneak eta gertakariak –bereziki esanguratsuak izan direnak– jaso behar dira. Une horiek aukeratzeko, adostutako helburua, objektua eta ardatza izan behar ditugu kontuan. Halaber, gure esperientzian eragina izan duten tokiko, eskualde-mailako eta maila globaleko elementuak jaso behar ditugu.
- ◆ Bestalde, sistematizazioaren une honetan, garrantzi handia dute erregistro idatziek, grafikoek, ikus-entzunezko erregistroek..., eta memoriak. Hala, datuak jasotzeaz gain, esperientzia bizi izan zutenen pertzepzioak jasotzea oso garrantzitsua da.
- ◆ Historia berreraikitzeke hainbat tresna erabil daitezke: historia-espinalak, denbora-lerroak, grafikoak, kronologiak, kontaktak... Lan horiek tailerren edo bileren bidez egin daitezke, gure esperientzian garrantzia izan zuten pertsonak elkarrizketatuz...
- ◆ Tresna horiek modu kolektiboan erabiltzean, sistematizatzen ari garen esperientziari buruzko galderak eta zalantzak sor daitezke. Galdera eta zalantza horien oharrak hartzea komeni da, baina oraindik ez zaie erantzun behar edo ez da horien gainean eztabaidatu behar. Aurrerago erantzungo diegu galdera horiei; ez orain. Galdera kritiko horiekin, gida bat egin daiteke papelografo batean. Hurrengo pausuan helduko diegu galdera horiei, eta gertatu zena zergatik gertatu zen jakiten lagunduko digute.

Informazioa ordenatzea eta sailkatzea

- ◆ Historia berreraikitzeko edozein teknika erabilia ere, ordenatu eta sailkatu beharreko informazio asko pilatu ohi da, ondoren, erabili eta ulertu ahal izateko. Horrez gain, agertu diren hainbat alderdi sakonago aztertu beharko ditugu. Horretarako, adibideetan ageri diren teknikak erabili daitezke. Teknika horien bidez, gertaerarik garrantzitsuenak berreskuratuko ditugu, helburuarekin eta ardatzarekin lotutako elementu batzuen arabera xehatuko ditugu, eta, hala, prozesua berreraiki ahal izango dugu.
- ◆ Pauso hau ematean agertzen diren zalantzak, arazoak, hipotesiak eta galderak orri batean idaztea komeni da (lehen “galdera kritikoen gida” deitu diogu), gure esperientzia aztertzen eta interpretatzen lagunduko digutelako.




Funtsezko elementua

- ◆ Gertatutakoa gertatu zen bezala berreraikitzea, modu ordenatuan.
- ◆ Prozesuaren etapak identifikatzea.
- ◆ Informazioa sailkatzea.




Gomendioak


- ◆ Ahalik erregistro gehien erabili behar dira. Erregistroak izan daitezke bilera-aktak, landa-koadernoak, lan-egutegiak, dokumentuen zirriborroak, plangintzak, mintegietako memoriak, argazkiak, grabaketak, bideoak, grafikoak, mapak, marrazkiak... Horiekin erregistro-taulak egin daitezke, sistematizatu nahi dugunaren eta sistematizatze erabili nahi dugun moduen arabera. Hainbat eta hainbat aukera daude lan hori egiteko. Taldearen eta taldeko pertsonen sormenaren esku dago aukera egitea.
- ◆ Bestalde, informazioa modu argian antolatu behar da, eta esperientzia bizi izan dutenek parte hartu behar dute lan horretan. Izan ere, pertsona horiek informazioa osa dezakete, eta prozesuan modu aktiboagoan parte har dezakete.
- ◆ Ez dugu ahaztu behar memoria berreskuratze denak balio duela eta dena dela garrantzitsua, elementu subjektiboak nahiz objektiboak.




Iruzkinak




Erregistroetako informazioa osatzeko, parte-hartzaileen memoria erabil daiteke, eta trianglaketa-efektua egin (errealitatea, erregistroak eta memoria).




la beti edukitzen dira erregistroak, baina gutxitan biltzen dute behar den guztia. Beraz, dauzkagun erregistroak ahalik gehien aprobetxatu beharko ditugu.




Ahozko iturrien ahalmenak eta mugak kontuan hartu behar dira.



Une hau balia daiteke esperientzian parte hartu duten pertsona gehienak prozesuan engaiatzeko, egindakoa ospatzeko eta ondoren egingo dugunari buruzko hausnarketa bultzatzeko.



Ez diegu orain erantzun behar sortzen diren hutsuneei eta galderei. Idatzi egingo ditugu, geroago erabiltzeko.



Berreraikitze historikoa egitea funtsezkoa da sistematizaziorako.

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Colectivos del Parke

Jardueraren izenburua:

Sugea.

Helburua:

- Sistematizazioaren objektuari buruzko unerik garrantzitsuenak berreskuratzea, parte hartu zuen jendeak bizi izan zuen bezala. Beraz, esperientziaren elementu objektiboak eta subjektiboak jasotzen dira.

Garapena:

1. Sistematizazio-taldeari azaldu genion zer den “sugea”, eta zenbat denbora iraungo duen.
2. Papelografo handi bat jarri genuen paretan, eta suge bat marraztu genuen papelografoaren punta batetik bestera. Sugearen isatsean esperientziaren hasiera-data idatzi genuen, eta buruan amaiera-data. Bi data horiek identifikatuta zeuden sistematizazio-prozesuaren objektuan.
3. Sugea marraztu ondoren, markatutako bi daten artean kooperatiban izandako esperientziaren unerik garrantzitsuenak gogoratzeko eskatu zien bi bideratzaileek parte-hartzaileei. Pauso hori emateko, kooperatiban genituen hainbat dokumentu grafiko erabili genituen (argazkiak, triptikoak, egunkarietako artikulak...). Dokumentu horietan, denbora-tarte horretako historia biltzen zen, modu batean edo bestean.
4. Hala, sugea osatu genuen modu kolektiboan. Sugearen goialdean idatzi genituen esperientzian eragina izan duten urruneko eta gertuko alderdiak, eta behealdean esperientzian eragina izan duten kooperatibaren alderdiak. Gainera, azpimarratutako gertaerak kolore bateko errotuladorearekin idatzi genituen, eta beste kolore batekin bakoitzak gertaera horiek nola bizi izan zituen.

Sugea egiteko moduari buruzko bi gauza nabarmendu nahi genituzke:

- Taldean eztabaida interesgarria izan zen suge bat ala bi egiteari buruz. Zenbaiten iritziz, denbora-tarte horretan egindako jardura garrantzitsuenetako bati buruzko suge bat egin behar zen eta ondorengo prozesu guztia biltzen zuen beste bat. Beste batzuen ustez, berriz, jardura horren aurretik eta ondoren gertatutakoa batera azaldu behar zen.
 - Bestalde, azpimarratu behar da sugearen tailerrean parte hartu zuten guztiek ez zutela sistematizatu beharreko esperientzia bizi izan, taldean sartu berriak zirelako. Beraz, denek ez zuten parte hartu denbora-tarte horretan egindako ekintzak sugeari irudikatzen. Dena den, ekintza horiek bizi izan zituztenen oroitzapen eta kontaketen bidez, gertatutakoaren garrantzia, konplexutasuna eta indarra ulertu ahal izan zuten besteek.
5. Prozesuaren bi bideratzaileek beren ustez sugeari azpimarratu beharreko ideia nagusiak berreskuratu zituzten, sistematizazio-prozesuaren hurrengo pausoetara bideratzeko.

6. Sugea egin ondoren, agertutako guztiaren kontaketa egin genuen guztion artean. Ariketa zaila, baina interesgarria izan zen, eta ideiak ordenatzen eta ideia horiek jasotzeko moduak adosten lagundu zigun.
7. Sugea amaitu ondoren, une garrantzitsu batzuk identifikatu genituen, horietatik abiatuta, sistematizazio-prozesuaren hurrengo pausoak emateko.
8. Sugea osatzeko, bideo bat egitea proposatu zen, auzoko beste pertsona batzuen edo sistematizatu-tako prozesuarekin zerikusia izan dutenen iritziak jasotzeko. Hori egiteko, ondo identifikatu beharko lirateke elkarrizketatu beharreko pertsonak. Sistematizazio-taldean dauden pertsonak ez izatea gomendatzen da. Kontua da sistematizazio-taldeak bideo hori ikusi behar duela sistematizazio-prozesuaren hurrengo pausoak eman baino lehen. Bideoek kooperatibaren esperientziari buruzko ideia berriak eman behar dizkigute. Galdera hau egin beharko litzateke elkarrizketatutakoei: Garbiketa-kooperatibaren zer une iruditzen zaizkizu garrantzitsuak eta zergatik iruditzen zaizkizu garrantzitsuak?

Beharrezko materialak:

- ◆ Papelografoa.
- ◆ Errotuladoreak.
- ◆ Zinta itsasgarria.
- ◆ Argazkiak, triptikoak, egunkarietako artikuluak...
- ◆ Bideokamera.

Denbora:

- ◆ Bi saio (bakoitza 3 ordukoa) eta bideoaren gidioa eta elkarrizketak egiteko denbora. Elkarrizketatu beharreko pertsonen arabera izango da denbora hori.

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Bidegintza Elkartea

Jardueraren izenburua:

Gure historiaren espirala.

Helburua, objektua eta ardatza adostu ondoren, esperientzian parte hartu zuten entitate guztiei dei egin genien berriz ere, denen artean gure historiaren espirala diseinatzeko.

Bilera horretara joan zirenak gogoz zeuden oroitzape-nei hautsak kendu, eta datuak, anekdotak, sentsazioak... eskaintzeko. Izan ere, espirala egiteko akten, kartelen, argazkien... bidez jasotako datu objektibo guztiez gain, izaera subjektiboko informazioa ere jaso nahi genuen, hainbat data, erabaki eta prozesutan eragina izan zutelako.

Sistematizazio-prozesu guztia amaitu ondoren, aipatu genuen historiaren espirala egiteko une hori izan zela, agian, politena eta dibertigarriena. Izan ere, jende askoren argazkiak, kartelak eta marrazkiak eta elkarrekin bizitako une asko agertu ziren, irribarre bat baino gehiago aterarazi zigutenak eta oso une bereziak gogorarazi zizkigutenak.

Helburua:

Objektuan zehaztutako garaian, sistematizatutako esperientzia osatu zuten une garrantzitsu guztiak gogoratzea, denen artean.

Oroitzapen guztiak ordenatzea, datak, parte-hartzaileak, edukiak... zehaztuz, eta hori guztia irudikatzea, helburuarekin, objektuarekin eta ardatzarekin koherentzia galdu gabe.

Garapena:

1. Sistematizatutako esperientzian parte hartzen zuten bost entitateei gogoratzen lagun zezaketen mota guztietako materialak ekartzeko eskatu genien (argazkiak, kartelak, aktak, egunkari-zatiak, marrazkiak...).
2. Lehenik eta behin, espiral handi bat marraztu genuen papelografo handi batean. Izan ere, oroitzapenak ez ziren modu ordenatuan agertzen, eta zenbait aldiz “atze-ra egin” behar izan genuen gertaerak, datak... sartzeko.
3. Entitateetako ordezkariak ekarritako material guztiak lurrian jarri genituen, papelografo handiaren ondoan, dena ondo ikusi ahal izateko. Material horiek erreferentzia egiten zieten unearen arabera sailkatu genituen, eta tontor txikiak egin genituen.
4. Papelografoan une guztiak irudikatzen hasi ginen. Gertaera bakoitzaren ondoan, data eta gertaeraren deskribapen laburra idazten genuen. Pertsona batek jendeak esandakoa idazten zuen papelografoan. Datak kolore batekin idazten zituen eta deskribapenak beste batekin.
5. Norbaiti ñabarduraren bat gaineratzea garrantzitsua iruditzen bazitzaion (adibidez, alderdi subjektiboren bat edo esperientzia baldintzatu zuen kanpoko faktoreren bat) idatzi egiten zen hori ere. Papelografoa “collage” itxura hartzen joan zen...
6. Espirala amaitu ondoren datei eta parte-hartzaileei buruzko galdera asko genituen, zalantza guztiak orri batean bildu genituen, eta zalantza horiek nor argi zitzakeen pentsatu genuen. Hala, parte-hartzaileen artean banatu genituen zalantza horiek, eta 15 eguneko epea jarri genuen erantzunak aurkitzeko.

Bi parte-hartzaile egindako guztia garbira pasatzeaz arduratu ziren, material hori bigarren bilerara eramateko. Hala, bilera horretan, errazagoa izango zen datu berriak sartu eta espirala adostea, sistematizazio-prozesuaren hurrengo pausoa emateko.




Beharrezko materialak:

- ◆ Papelografoa.
- ◆ Koloretako errotuladoreak.
- ◆ Bilera-aktak, gertaera garrantzitsuak...
- ◆ Argazkiak, kartelak eta gogoratzen lagun dezakeen guztia...
- ◆ ...eta memoria handia.

Denbora:

- ◆ Lehenengo saioa: bi ordu.
- ◆ Ahaztutako edo galdutako datuak bilatzeko denbora (15 eguneko epea jarri genuen).
- ◆ Bigarren saioa: ordu bat eta erdi. Epe horretan aurkitutako datuekin espirala osatzeko erabili genuen.



Oharrak:

Akten artxibo ona eta argitaratutako materialak edukitzea ez da ohikoa izaten beti.

Ez da memoriak gehiegi fidatu behar, batzuetan, datak, gertaerak... nahastera eramaten baitu.

Bizi izandakoaren ikuspegi subjektiboa saihestea zaila izaten da askotan (eragina du, adibidez, gertaera bati garrantzia handiagoa ala txikiagoa ematean edo gertaera oztopo edo aurrerapauso gisa definitzean...).

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Escuela Popular de Neiva

Jardueraren izenburua:

Oroitzapenen ibilaldia.

Helburua:

- Esperientzian parte hartu zuen talde bakoitzak historia berreskuratzea eta berreraikitzea eta une erabakigarriak azpimarratzea.

Garapena:

Hasteko, hezkuntzako agenteak (irakasleak, ikasle ohiak eta gurasoak) MOTIBATZEKO topaketak egin genituen. Horrez gain, talde bakoitza bere aldetik bildu zen beste egun batean. Irakasleekin, adibidez, hainbat topaketa egin ziren leku desberdinetan. Topaketa horietan egindako jardueren bidez, hainbat konpromiso eskatzen zituen lanari ekiteko zuen gogoia adierazi zuen parte-hartzaile bakoitzak. Horrez gain, sistematizazioaren helburua eta sistematizazioak esperientzia kualifikatzeko egin ditzakeen ekarpenak argitu genituen.

1. Irakasleekin bi eguneko topaketa egin genuen hiritik gertu dagoen etxalde batean. Bogotako topaketan parte hartu zutenek zuzendu zuten tailerra, eta pauso hauek eman zituzten:
2. Sistematizazioaren historia herri-hezkuntzaren testuinguruan berreraiki ondoren, ikerketa kualitatiboa eta positibista alderatzeko ariketak egin genituen, eta ondorioztatu genuen sistematizazio-prozesuak ikerketa kualitatiboko prozesua izan behar duela eta prozesuaren eragileek parte hartu behar dutela. Handitutako grafiko baten bidez, proposamen metodologikoa landu genuen, eta eskolaren historia berreskuratzeke lanari ekin genion.
3. Aldez aurretik, ariketa batzuk egin genituen ezagutzaren alde subjektiboa eta ikerketan ager daitezkeen ikuspegiak eta jarrerak ulertzeko. Ondoren, “chiva” izeneko gailua erabili genuen, parte-hartzaile bakoitzari bere bizitzako gertaerak gogoratzen laguntzeko. Oso ariketa aberatsa da, hainbat eta hainbat bizipen partekatzen direlako eta bakoitzak desberdin ikusten dituelako bizipen horiek. Jarreretan arreta jartzeko, esaera zaharrak erabili genituen: “gaizki esanak barkatu eta ondo esanak kontuan hartu”, “urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau”... Esaera batzuk taldean aztertu genituen, eta besteen ikuspegiak entzutea zailtzen duten jarrerak zehazten saiatu ginen.
4. Esperientziaren berreskuratze historikorako, eskolako lehenengo urteen ingurune naturala eta soziala erakusten dituen ikus-entzunezkoa erabili genuen. Horrez gain, erakusketa txiki bat egin genuen, argazkiekin, albumekin eta dokumentuekin.

5. Ondoren, hiru talde antolatu genituen, hezitzaile bakoitza berrikuntzan sartu zen garaia-
ren arabera. Talde horietako bakoitzak grafiko bat prestatu zuen, bizitako esperientzien
une erabakigarriak azaltzen zituena. Lanak guztien artean batera jartzea eta berreraiki-
tzea esperientzia interesgarria izan zen; talderik berriena hasi zen eta gainerako taldeak
informazioa osatzen joan ziren.
6. Sakoneko galderak egiten hasi baino lehen, parte-hartzaile bakoitzak galdera pertsonal
bat egin zion eskolari. Horren bidez, esperientziak bakoitzaren bizitzan izan duen esana-
hia eta izan dituen alde onak eta txarrak agertu ziren. Adibidez: eskolatxo, zergatik izan
duzu horrelako eragina nire bizitza pertsonalean eta familiarrean?...
7. Ondoren, sistematizazioaren helburuak birformulatu genituen. Azpimarratu behar da
Bogotáko tailerreko kideek proposatutako helburu berak zirela gehienak. Azkenik, lan-
plana egin genuen, eta informazio gehiago jasotzeko bakoitzak egin beharreko lanak eta
taldeko lanak zehaztu genituen.

Beharrezko materialak:

- ◆ Prozesuaren une batzuen argazki-erakusketa.
- ◆ Ikus-entzunezko aurkezpena.
- ◆ Eragingailua.
- ◆ Papelografoa eta errotuladoreak.

Denbora:

- ◆ Bi eguneko tailerra.

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Escuela Popular de Neiva

Jardueraren izenburua:

Oroitzapenen ibilaldia.

Helburua:


- Esperientzian parte hartu zuen talde bakoitzak historia berreskuratzea eta berreraikitzea eta une erabakigarriak azpimarratzea.

Garapena:


1. Eskolaren historia berreskuratzeko tailerrak 27 ikasle ohirekin egin genituen. Eskolako esperientziaren hiru etapa esanguratsuen arabera antolatu genituen taldeak (1980-1989; 1990 – 1998 eta 1999 – 2004). Gurasoekin erabilitako metodologia bera erabili zen ikasle ohiekin: OROITZAPENEN IBILALDIA deitu genion argazki-erakusketa bat egin genuen memoria suspertzeko. Irakasleekin, berriz, “oroitzapenen eragingailua” erabili genuen, eta esperientziaren sorrerako etapari buruzko ikus-entzunezkoak ikusi genituen.
2. Ondoren, tailerrari ekin genion. Hasteko, *ideiajasa* bat egin genuen, parte-hartzaileek sistematizazioari buruz zekitena jasotzeko. Eskolan zeudenean egindako proiektuetan bizitako esperientziak gogoratu zituzten. Halaber, haurrek egindako galderetatik abiatzen ziren ikerketa-prozesu errazak egiteko sei pauso metodologikoak gogoratu zituzten. Ekarpen guztiak banan-banan jaso eta bateratu genituen, eta tailerraren orientatzaileek horiek osatzen lagundu ziguten.
3. Ondoren, lan-taldeek bizitako esperientziaren bidea berreraiki zuten irakasleen laguntzarekin. Aurkezpen grafiko bat egin zuten eskolan bizitako esperientziatik gogoratzen zituzten une, produktu eta gertaera garrantzitsuak nabarmenduz.
4. Talde bakoitzaren lana besteei azaltzean, oso galdera interesgarriak egin zituzten, eta galdera horien erantzunak oroitzapenak aberasten, grafikoak aldatzen edo ahaztutako gertaerak berreskuratzen lagundu zuten. Grafikoek etapen arteko alde nabarmenak agerrarazi zituzten. Hala, grafiko horiek kronologikoki antolatzeko batzorde bat osatzea erabaki zen, ekarpen guztiak grafiko historiko batean integratzeko.
5. Bileraren bigarren zatian, irakasleek, gurasoek eta ikasle ohiek berreskuratutako historiaren emaitzak partekatu zituzten. Hala, gurasoek, ikasle ohiek eta irakasleek osatutako hiru talde antolatu ziren. Lehenik eta behin, etapa eta azpitaldeen bidez egin zen lana, eta ondoren, estamentuka:

Lehenengo etapa 1980-1989	Bigarren etapa 1990 – 1998	Hirugarren etapa 1999 – 2004
Gurasoak	Gurasoak	Gurasoak
Ikasle ohiak	Ikasle ohiak	Ikasle ohiak
Irakasleak	Irakasleak	Irakasleak

1. Batera-jartze partziala etapaka eta azpitaldeka.



2. Aurkezpena. Osoko bilera.



6. Ordu eta erdiz, taldeek elkarri azaldu zizkioten grafikoa eta beren etapako gertaerarik garrantzitsuenak. Halaber, kointzidentziak eta desberdintasunak nabarmendu eta zalantzak eta kezak argitu zituzten. Ondoren, hainbat jarduera prestatu ziren bakoitzari zegokion kontakizunaren zatia osoko bileran aurkezteko, grafikoa oinarrituta.

Osoko bileran, talde batek historia kolektiboa aurkeztu zuen elkarrizketa baten bidez. Beste talde batek erreportaje erradial bat egin zuen txotxongiloekin, eta taldeko kideek ere parte hartu zuten. Azkenik, hirugarren taldeak telebista-programa bat aurkeztu zuen eurek egindako ekipo batekin. Beste taldeetako kideek ere parte hartu zuten programan.

Osoko bileran historia guztia bistaratu zen, hiru etapak elkartuz, eta kontakizun horiek osatzeko, etapan arteko kointzidentzia eta aldaketa garrantzitsuenak nabarmendu ziren. Halaber, hainbat galdera egin zituzten oinarritzko informazioa zabaltzeko. Hala, esperientziaren krisi-uneak markatu zituen gertaeraren bati buruzko datu zehatzagoak jaso behar zirela nabarmendu zuten. Horretarako, bilera horretan parte hartu ez zuten komunitateko kide batzuei elkarrizketak egitea erabaki zuten.

Horrez gain, gaur egungo gurasoei berreskuratze historiko horretako emaitzen berri eman zieten, ekitaldi oso interesgarri baten bidez. Ekitaldi horretan, gaur egungo haurrek duten eskola duina lortzen saiatu ziren haiekin modu kontzienteagoan eta solidarioagoan parte hartzera bultzatu nahi zituzten guraso horiek.

Beharrezko materialak:


- ◆ Prozesuaren une batzuen argazki-erakusketa.
- ◆ Papelografoa eta errotuladoreak.
- ◆ Txotxongiloentzako, irrati-programarako... materiala.

Denbora:

- ◆ Bost orduko saioa.



Material osagarria



Oharrak:

Emaitzak aztertu ondoren, esan daiteke ikasle ohi zaharrentzat elkarrekin biltzea izan dela tailer honetako ezaugarriarik azpimarragarriena. Horrez gain, harridura agertu dute eskolaren aldaketengatik, instalazio zahar-
raren eta berriaren arteko desberdintasunak nabarmendu dituzte, eta horrek guztiak oroitzapen onak ekarri
dizkiete gogora. Gainera, gertaera atseginak gogoratu dituzte; inork ere ez du aipatu esperientzia tristerik.

Parte-hartzea ere ebaluatu dugu, eta, batez ere, lehenengo eta hirugarren etapako kideek parte hartu dutela
nabarmendu dugu. Bigarren etapako oso kide gutxik hartu dute parte. Beraz, hurrengo bileran, deialdia egi-
teko moduak hobetu beharko dira, etapa guztietako parte-hartzaileen kopurua orekatuagoa izateko.

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

CENTRO DE ESTUDIOS Y PUBLICACIONES ALFORJA. Generoari eta demokrasiari buruzko programa

Jardueraren izenburua:

Emakume aitzindariak, historiadun emakumeak.

Helburua:

- Prozesuaren berreraikitze historikoa partekatzea eta aberastea, alderdi hauek berreskuratzeke:
 1. Banaka bizi izandako esperientziak eta ulertzeko moduak.
 2. Prozesu kolektiboaren esperientziak eta ulertzeko modu nagusiak.
 3. Azterketa kritikoan eta interpretazioan sakondu beharreko gaietara lehenengo hurbilketa egitea.
 4. Irakaspen batzuk.
- Prozesuaren berreraikitze historikoa adostasunez egitea, eta horren bidez, identitate kolektiboa, prozesuaren ikuspegia eta partaide bakoitzaren atxikimendua indartzea.
- Esperientzien sistematizazioak banakako ahalduntze-prozesuei eta emakumeen ahalduntze-prozesu kolektiboari egiten dien ekarpenaren berri ematea.

Garapena:

1. Egun eta erdiko gogoeta egiten da, hurrengo fitxan agertzen den bezala.

Gaia	Helburuak	Edukiak	Teknika • Prozedimentua	Materialak
1. Motibazioa.	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrekin hausnartzeko prest egoteko giroa sortzea. • Tailerraren helburuak barneratzea. • Ikuspegi desberdinek duten garrantziari eta aberastasunari buruz sentsibilizatzea. • Prozesuaren begiradak berreskuratzea, intuizioan eta “lehenengo begiradan” oinarrituta. • Tailerra sistematizazio-prozesuaren eta prozesua ulertzeko moduen esparruan kokatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak eta ordutegia. • Sistematizazioaren helburuak. • Ardatza. • Sistematizazioaren zentzua prozesuari begira. • Sistematizazioa zer den eta sistematizazioa ulertzeko moduak. • Berreraikitze historikoa. • Errealitatera hurbiltzeko ikuspegi desberdinak. • Eduki objektiboak eta subjektiboak. • Historia pertsonala eta egoerak bizitzeko eta interpretatzeko modua. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osoko bilera: ongi-etorria eta tailerraren ezaugarriak (ordutegiak, helburuak...). (10´) • Osoko bilera: Sistematizazio-prozesuaren eta tailerraren ezaugarriak ematea. (20´) • Argazki-hitza: Arbelean irudi bat itsasten da, eta taldearen erakusten zaio. Ondoren, bakoitzak ikusi duena idazten du txartel batean. Bakoitzak idatzitakoa esaten du, eta sistematizazio-prozesuarekin lotzen da. Edukia eta metodoa deskodetzen dira prozesuaren sistematizaziorako. (30´) • Otamena. (15´) • Eskulturen teknika: Parte-hartzaile bati eskultura bat egiteko eskatzen zaio, eskultura horren bidez, Cantón Central de Puntarenas-eko emakumeek bizitako prozesuari buruzko intuizioak eta “sentsazioak” adierazteko. Ondoren, bi edo hiru boluntariori eskultura o beren ikuspegiaren arabera aldatzeko eskatzen zaie. Papelegrafoan oharrak hartzen dira. Gainerako parte-hartzaileei ere ekarpenak egiteko eskatzen zaie, estatua bera aldatu gabe. Azkenik, osoko bileran egindakoa deskodetzen da. (60´) • Bazkaria. (60´) (12:00) 	<ul style="list-style-type: none"> • Papelegrafoak, lumatxak, koloretako txartelak, argazkiak, “masking tape” bertaratze-orria.

Gaia	Helburuak	Edukiak	Tek. • Prozed	Materialak
2. Ikuspegi komunerantz.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuaren berreraikitze kolektiboa egiteko lehenengo hurbilketa egitea, banakako hurbilketak eta hiriko eta landa-eremuko emakumeen hurbilketak berreskuratuz. • Alderdi komunak eta desberdintasunak identifikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Etapa komunak – gaiak identifikatzea. • Une ahaztezin nagusia. • Bizitako beldur nagusia. • Irabazitako ahalmenak. • Galdutako ahalmenak. • Aldaketak. • Alor ukiezinak. • Hainbat praktika ulertzeko moduetan izandako aldaketak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Talde-lana gidarekin: taldea bitan banatzen da. sintesiaren matrizea (batez ere etapak) berrikusten dute, eta lehenetsun-ordenan jartzen dituzte une ahaztezinak, beldurrak, amorrak, irabazitako eta galdutako ahalmenak, aldaketa pertsonal eta kolektiboak, bizitza pertsonalaren eta erakundeko bizitzaren alor ukiezinak eta ulertzeko moduen aldaketak. (60´) • Otamena. (15´) • Osoko bilera: talde bakoitzak etapan proposamena azaltzen du, eta eztabaida egiten da adostasunera iritsi arte. Gainerako alderdiei dagokienez, talde batek azaldu eta besteak osatu egiten du. Azterketaren lehenengo atala egiten da, gai batzuek eztabaidatzea proposatuz eta sakondu beharreko gaiak zehaztuz. (120´) 	<ul style="list-style-type: none"> • Orriak matrizeekin, papelografoak matrizeekin.
3. Ikuspegi partekatua berreraikiz.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesu kolektiboa den artean berreraikitzea, alderdi komunak barneratuko dituen ikuspegia, baieztatutakoa eta ezeztatutakoa eta liderren eta, oro har, emakumeen ikuspegia berreskuratuz. • Korapilo sinergiko batzuk identifikatzea azterketa eta interpretazio kritikoa egiteko. • Esperientziaren bidez ikasitakoa bistartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesuko gertaera garrantzitsuak, emakumeen mugimenduaren ikuspegitik. • Kantoi-mailakoa. • Eskualde-mailakoa. • Prozesuaren emaitzak: antolaketa, eragin politikoa, ahalduzko pertsonala, bizi-kalitatea hobetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Afaria. (60´) • Lana 2 taldetan: ibai baten irudia erabiltzen da. Ibaiak bere adarrak, zubiak, presak, ur-jauziak eta dikeak ditu, herriak eta soroak pasatzen ditu..., eta laku handi batean isurtzen ditu urak. Marrazkiak emakumeen mugimendua irudikatzen du, eta bere bidez, edukiak identifikatzen dira. (45´) • Osoko bilera: batera jartzea eta korapilo sinergikoak eta irakaspenak identifikatzea. (60´) • Ebaluazioa. (15´) 	<ul style="list-style-type: none"> • Kazeta-papera, koloretako pilot-ak eta arkatzak, "masking tape".



Material osagarria

Historia pertsonala jasotzeko fitxa.

Nire historia emakume aitzindari gisa (1) 2000-2003

Emakume aitzindari gisa izandako esperientziaren etapak

-

Etapak bakoitzeko une ahaztezinak

-

Etapak bakoitzean bizi izandako poztasunak

-

Sentitutako beldurrak

-

Sentitutako amorrak

-

Irabazitako ahalmen pertsonal eta kolektiboak

-

Galdutako ahalmen pertsonal eta kolektiboak

-

Bizi edo sentitutako galerak

-

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Asociación de Mujeres del Oriente

Jardueraren izenburua:

Gure bidearen azarnak.

Helburua:

- Erakundean parte hartzen duten emakumeekin historia berreraikitzea.

Garapena:

Historia berreraikitzeko, emakumeen lehenengo topaketa diseinatu genuen. Horretarako, zer estrategia erabili eta zein emakumei deitu pentsatu genuen, behar genuen materiala sortu genuen eta bigarren mailako iturriei buruzko informazioa bildu genuen (txostenak, aktak, argitalpenak...).

1. Deialdi hori egiteko, lehenik eta behin, hamar urtetan prozesuan parte hartu zuten emakumerik garrantzitsuenen zerrenda egin genuen. Bizi izandako une guztiak ordezkatzeko zituzten emakumeak aukeratzeko saiatu ginen. Hala, gonbidapen-txartel polit eta erakargarria diseinatu genuen, tximelekin apainduta (tximeleta adiskidetzearen sinboloa da, eta emakumeok askotan erabiltzen dugu).
2. Topaketa lau zatitan egitea pentsatu genuen.
 1. Lehenengo zatian, emakumeek kartel batetik bestera argibiderik gabeko eta ustekabeko ibilbidea egitea lortu nahi genuen. Hamar kartel zeuden –bat urte bakoitzeko–, eta oso informazio gutxi biltzen zuten. Ondoren, elkarte horretan eta historian sortutako sentimenduak partekatzeko gunea sortu genuen.
 2. Bigarren zatian, sistematizazio-prozesua eta prozesu horren lorpenak eta motibazioak azaldu genituen, oso erraz ulertzeko moduan. Ondoren, bigarren ibilbidea egiteko eskatu genien. Ibilbide hori gidatuagoa zen, eta emakumeek esperientziaren ekarpen historikoak idatzi behar zituzten orrietan, eta ondoren, zegoen kartelean itsatsi.
 3. Hirugarren zatian, taldekako lana egin genuen. Emakumeek AMORen parte hartu zuten urteen arabera antolatu genituen taldeak, prozesuaren oztopoak eta aurrerapausoak detektatzeko. Ondoren, taldeetan esandakoa osoko bileran azaldu, eta banakako ikuspegitik taldearen ikuspegira pasatzea zen gure asmoa.

4. Laugarren zatian, erakundeak emakumeen arlo pertsonalean, familiarrean eta sozialean izandako eragin (aldaketa) positiboari edo negatiboari buruz hausnartzea nahi genuen, eta horretarako, emakumeek osoko bileran solasaldia egitea.
5. Emakume askok aspaldian ez zuten parte hartu horrelako topaketa batean, laneko, familiako edo gatazka armatuko arrazoiak zirela eta. Horregatik, elkartzeko gune berezia behar zela pentsatu genuen, eta gauez izan behar zuela, emakumeek erakundetik kanpo zituzten bizipenak, esperientzia berriak, azken finean, eguneroko bizitza elkarri kontatzeko.


Beharrezko materialak:

- ◆ Historia urtez urte kontatzen duten kartelak, ibilbide historikoa osatzeko.
- ◆ Informazioa emateko kartelak: topaketaren helburuak, agenda, lanaren aurrekariak, erakundeak parte hartu duen prozesuak, galdera orientatzaileak...
- ◆ Papelografoa eta errotuladoreak.

Denbora:

- ◆ Egun oso bat eta gau bat.

Material osagarria



Oharrak:

Jarduera hori egin aurretik, AMORen batzar orokorra egin genuen, eta batzar hori baliatu genuen emakumeak sistematizazio-prozesuarekin interesatzeko eta motibatuzko, sistematizazio-kontzeptua denen artean erakituzko, eta AMORek esan nahi zuenari buruzko gaueko solasaldia egiteko. Horrez gain, topaketara gonbidatutako emakumeei egindako deialdia udalerrietara bidali genuen.

Hasteko, batzar horretan, galdera batzuk egin genituen emakumeek prozesu horiei buruz zekitena jasotzeko: Zure ustez zer da sistematizazioa?; zertarako sistematizatu behar da AMOR?; zer jakin nahiko zenuke AMORi buruz, zer galdera egingo zenituzke sistematizazioari buruz?; zer ekarpen egin diezazuke sistematizazioak? Txatalez egindako ohe-estalki bat eginez erantzun behar zituzten galdera horiek, artea eta sormena erabiliz. Ondoren, osoko bileran, emakumeek bildutako informazioa kontzeptualki zabaldu genuen, eta zalantzak argitu genituen.

Gero, gaueko solasaldia egin genuen, eta emakumeek AMORek esan nahi zuenari buruz hitz egin zuten. Harriduraz, konturatu ginen emakume askorentzat AMOR sentimendu batekin lotuta zegoela, parte hartzen zuten erakundearekin baino gehiago. Horrek ezinegona sortu zigun, eta itxaropena ere galarazi zigun.

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundeak:

Elhuyar Aholkularitza

Jardueraren izenburua:

Ibaia.

Helburua:

- Enpresa bateko euskara-planean egindako urratsen, faktore eragileen eta horien ondorioen gainean hausnarketa egitea, planak izan duen ibilbidea era grafikoan adieraziz.

Garapena:

Planaren bilakaeran giltzarri diren arloak definitu (parte-hartzea, komunikazioa, egitura, koordinazioa, emaitzak...) eta bakoitza adierazteko eta baloratzeko ikurrak adostu. Ondoren, planaren historia egin, urtez urte izandako gorabeherak ikurren bidez islatuz. Bukatzean, ibai-forma duen diagrama bat dugu, bere zabalgunek, etenak, eta bihurtzekin, eta ibaiaren ertzetan ageri zaizkigu islatuta emarian izan diren aldaketetan eragin duten faktore guztiak.

Beharrezko materialak:

- ◆ Orri zuria, ahal dela A1 neurrikoak; koloretako errotuladore eta margoak, adierazpen plastikorako edozein material (eranskailuak, plastilina...).

Denbora:

- ◆ Aztertu nahi den prozesuaren arabera: gure kasuan, egiteko 3 ordu; gero sozializatu eta egokitzen beste 2 ordu.

◇ Bizitako prozesua berreskuratzea

Esperientzia erabili zuen erakundeak:

Elhuyar Aholkularitza

Jardueraren izenburua:

Ordenamendurako gida.

Helburua:

- Planaren une edo ekintza bakoitzean, giltzarri diren zenbait faktorek erabileran zein eragin izan duten baloratzeko matrizea da, ekintza bakoitzaren indarguneak eta zailtasunak ere jasotzen dituena. Hauexek dira matrizean jasotako parametroak:

Garapena:

Erabileran eragiten duten faktoreak adostu ondoren, kronologikoki ekintza bakoitza aztertu parametro horien arabera, eta ahuleziak eta indarguneak identifikatu. Kasu gehienetan parametroak isolatzea oso zaila zen, elkar eragileak zirelako; ondorioz, ekintza bakoitza bost ardatzen arabera aztertu genuen, eta erabileran izandako eragina deskribatu genuen.

Beharrezko materialak:

- ◆ Idazteko materiala, paperean zein ordenagailuan.

Denbora:

- ◆ Sei ordu.

◆ Material osagarria

Ekintza	Denbora-tartea	Partizipazioa	Botere-harremanak	Komunikazio	Subjektibitatea	Egituraketa	Erabilera	Zailtasunak	Indarguneak	Oharrak

4. Pausoa: Sakoneko hausnarketa

Zergatik gertatu zen gertatu zena?

Sistematizazioaren une garrantzitsua da hau. Pauso bat gehiago eman behar da; beste bira bat eman behar zaio esperientziari. Oraingoan, historia modu kritikoa aztertu eta interpretatu behar da. Helburua ez da errudunak edo irtenbideak bilatzea, baizik eta gertatu zena zergatik gertatu zen ulertzea eta sakoneko hausnarketa egitea.

Sistematizazio-prozesuko erronkarik handiena da. Batzuetan, une honetara iristerako ez da indarririk geratzen. Bestalde, askotan, zaila izaten da hausnarketa eta azterketa horretan jende askok parte hartzea, jarraibide argi batzuk jartzen ez badira.

Beste batzuetan, berriz, historia berreskuratzeko unean hasten dira azterketa eta interpretazioa egiten (elkarrizketetan eta tailerretan), zeren askotan zaila egiten da deskribapena eta interpretazioa bereiztea. Ona da horretaz kontziente izatea, eta gerorako denbora uztea, azterketa eta interpretazio kritikoa sakonago egiteko.

Hasteko, egindako lan guztiaz baliatzea komeni da. Esperientziari buruz agertutako galderak ditugu; “galdera kritikoen gida” deitu duguna. Orain, prozesuaren ardatzetik abiatuta, esperientziari buruzko galdera berriak egin behar ditugu, gertatu zena zergatik gertatu zen jakiteko.

Galdera horiek gaika edo ardatzarekin lotutako kategorien arabera ordenatzea komeni da, errazago hausnartzeko eta elementuen arteko loturak bilatzeko.

Orain arte sistematizatutako esperientzietan, sistematizazioaren talde eragile batek edo talde sistematizatzaile batek gidatu du une hau, eta ondoren, bere hipotesiak eta interpretazioak talde handiarekin egiaztatu ditu.

Bestalde, une honetan, garrantzitsua da egindako hausnarketak egiaztatzea orain arte parte hartu ez duten –edo noizbehinka parte hartu duten– pertsonekin eta dokumentu teorikoagoekin. Logika batzuk ez ditugu ulertzen, batzuetan, eta teoria erabiliz, hobeto uler ditzakegu.

Abenturaren une honetan, joan-etorria egiten da teoriaren eta praktikaren artean, talde eragilearen eta esperientzia bizi izan dutenen artean, galderen eta galdera berriak egiten laguntzen diguten erantzunen artean... Agian, hasieran, irudituko zaigu ez daukagula galderak erantzuteko gaitasunik, baina, sistematikoak bagara, eta ardatza eta teoria kontuan hartuta, hitz egiten badugu, ia galdera guztiak erantzun ahal izango ditugu. Eta, gainera, erantzun askok harritu egingo gaituzte. Hori da interesgarriena.



Gomendioak

- ◆ Gertatutakoaren zergatiei buruz galdetzea: zergatik gertatu zen horrela?
- ◆ Parte-hartzaile bakoitzak banaka aztertzea, eta sintesia eta loturak egitea.
- ◆ Berezitasunak eta osotasuna, pertsonala eta kolektiboa dena aztertzea.
- ◆ Funtsezko faktoreak bilatzen saiatzea.
- ◆ Esperientziaren logika ulertzen saiatzea.
- ◆ Beste esperientzia eta teoria batzuekin alderatzea.

Iruzkinek

Gertatu zenaren etapan bila ari gara, benetan baliozkoa izan zenaren bila, eta ez proiektuan planteatu eta gertatu zenaren arteko ezberdintasunen bila.

Horri esker, instituzio-logikak aurki ditzakegu, edo orain arte planteatu ez diren gaiak planteatu ditzakegu. Garrantzitsua da instituzio-zuzendaritzarekin erlazioa izatea.

Konfiantza-eremuak sortzea eskatzen du.

Gogoan izan behar dugu prozesua egiten ari garela gure praktiketarik ikasteko gogoz, eta ez epaitzeko edo ebaluatzeko asmoz, ulertzeko asmoz baizik.

◇ Sakoneko hausnarketa

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Bizkaiko Cáritas. Komunitate-animaziorako taldea

Jardueraren izenburua:

Fluxugrama.

Helburua:

- Esperientziaren interpretazio kritikoa egitea.
- Balorazioa egitea, sistematizazioaren objektuari buruzko ondorioak ateratzeko.

Garapena:

Sistematizazio-prozesuan zehar, gida batean jasotzen joan ginen “galdera kritiko” guztiak. 28 galdera bildu genituen.

Bideratzaileen ekarpenen eta gomendioen bidez, gidaren atalak hobeto zehaztu genituen, testuingurua eta metodoa kontuan hartuta, eta galdera kritikoen gida lau zatitan antolatu genuen (kanpaina, ebaluazioa, parte-hartzea eta dinamizazio-lana), fluxugramarekin hasi ahal izateko.

Prozesu guztian, kartel handi batean jaso genuen galdera kritikoen gida. Kartel horretan agertutako zalantza guztiak jasotzen joan ginen. Nahita, erantzun gabe utzi genituen galdera horiek, sistematizazioaren erritmoa ez moteltzeko eta sakoneko hausnarketa aurrerago egiteko.

1. Honela banatu genuen lana: talde txikitik fluxugramak egin genituen, galdera kritikoen antolaketaren arabera sortutako multzoetan oinarrituta. Fluxugramaren teknikaren bidez, azterketa kritikoa eta sakoneko hausnarketa errazten dira, galderen laguntzarekin. Bai edo ez erantzuten diren galdera kritikoak egiten dira, eta ondoren, emandako erantzunetatik galdera berriak sortu eta erantzuten dira. Batzuetan baietz erantzungo da, bestetan ezetz, eta beste batzuetan, baiezkoa nahiz ezekoa emango da.
2. Multzo bakoitzean, bai edo ez erantzun beharreko galdera itxi batekin abiatu ginen, eta galdera horretatik, katean, beste galdera batzuk sortzen joan ziren. Galdera horien bidez, hainbat alderdiri buruz hitz egin, eztabaidatu eta, batez ere, hausnartu ahal izan genuen.
3. Konturatu ginen galdera asko elkarrekin lotuta zeudela eta ideia batzuek norabide bera zutela. Lan-dinamika hori oso interesgarria eta aberasgarria iruditu zitzaigun, oso izaera desberdineko galderak elkartzen lagundu zigulako: orokorra zehatzarekin, teorikoa edo ideologikoa praktikarekin, objektiboa subjektiboarekin, argiak itzalekin...

Beharrezko materialak:

- ◆ Galdera kritikoen gida, papera eta boligrafoa.

Denbora:


- ◆ Bi saio azpitaldearekin (hiru bat ordu bakoitzak) eta beste saio bat talde osoarekin (lau ordu).



Material osagarria

Ba al dago adostasunik parte-hartze gisa ulertzen dugunari buruz?

(hori da galdera kritikoa)



Oharrak:

Galdera kritiko guztiek ez dute izan behar bai edo ez erantzutekoak. Azterketa eta hausnarketa irekiak egiteko erabiltzen dira galdera-mota horiek. Edonola ere, galdera irekietatik galdera zehatzagoak sortzen dira (Nola? Zergatik?...).

◇ Sakoneko hausnarketa

Esperientzia erabili zuen erakundea:

COPEVISA

Jardueraren izenburua:

Kontaketa arrunta.

Helburua:

- Esperientziari buruzko memoria kritikoki interpretatzea, eta, denon artean, esperientzian gertatu zenari buruzko kontaketa adostea.

Garapena:

1. Abiapuntu gisa, esperientzia bizi izan zutenekin egindako topaketa batean landutako horma-irudi handi bat erabili genuen. Irudi horretan, lanaren ardatzak denboraren lerroarekin gurtzatzen ziren, eta aukera ematen zuen esperientziaren historia guztia ikusteko. Horma-irudia egoitzako paretan utzi genuen, nahi zuenak testuekin edo argazkiekin osatzeko.
2. Fase horretan oinarrituta, sistematizazioaren talde eragileak esperientziari buruzko historiaren kontaketa orokorra egin zuen. Helburua, objektua eta ardatza lotzen zituen galdera batetik abiatu zen kontaketa. Erantzunaren gako batzuk memoria berreskuratzeko fasean aurkitu genituen eta beste batzuk prozesuan zehar sortutako galderetan. Galdera horiek gaikako multzoetan ordenatu genituen, hemen agertzen den bezala.

Bestalde, bideratzaileen laguntzarekin, autore eta artikuluko batzuk identifikatu genituen, esperientziari beste ikuspegi batetik begiratzeko eta galderari erantzuten laguntzeko.
3. Tailer baten bidez, erakundeko beste kideekin partekatu genuen kontaketa, eta eztabaidaren funtsezko elementuak eta egindako interpretazioak identifikatu genituen.
4. Kontaketaren zirriborroa egin ondoren, topaketa egin genuen sistematizazioa egiten ari ziren Kolonbiako beste taldeekin. Esperientzia bakoitzean sakondu beharreko arazoak identifikatu ondoren, taldeek informazioa aztertu zuten, hainbat prozeduraren bidez. Halaber, bilerak eta tailerrak egin zituzten, batetik, gai jakin batzuei buruz irakurtzeko eta, bestetik, interpretazio-sintesia egiteko behar zituzten kontzeptuak eta hausnarketak lantzeko. Hala, esperientziak hobeto ulertzeko gako hauek identifikatu zituzten: parte-hartzeko moduei buruzko kezka, subjektibotasunaren pisua, generoa, politika eta tokiko eta nazio-mailako testuinguruak.

5. Esperientziari buruzko beste kontaketa bat egin genuen, beste taldeekin egindako lanean, tailerretan eta irakurraldietan ikasitakoarekin.
6. Azkenik, sistematizazio-taldeko beste parte-hartzaileekin partekatu genuen kontaketa.

Beharrezko materialak:

- ◆ Papelografoa, boligrafoak eta identifikatutako gai nagusiekin lotutako artikuluak.

Denbora:

- ◆ Zenbait saio talde eragilearekin, goizeko bi saio erakundeko parte-hartzaileekin eta bi eguneko tailerra beste erakundeekin.

Material osagarria

Dokumentua idatzi baino lehen egindako lanaren adibidea.

Galdera sortzailea: COPEVISAREN esperientziak zer laguntza ematen die (edo zer oztopo jartzen dizkie) gizarteko sektore xumeenetako emakume gazteei eta haurrei, arlo pertsonalean, erakundeetan, komunitatean eta tokiko esparruetan subjektu bihurtzeko?

Gai nagusiak	Galderak
1. Parte-hartzea eta subjektibotasuna – egunerokotasuna.	Parte hartzeko prozesuek zer aldaketa pertsonal sortu dituzte?
2. Parte-hartzea, identitatea, demokrazia.	Zer botere-praktika erabili dira COPEVISAREN dinamikan?
3. Komunitatea.	Nola ulertzen da eta nola eraikitzen da komunitatea?
4. Parte-hartzea – eskubideen subjektuak, politika publikoak, tokiko boterea eta generoa.	Aurrekariak. Tokiko esparruetan parte hartzeko motibazioak. Nola gauzatu da parte-hartzea? Zer botere-praktika erabili dira parte hartzeko esparruetan? Zer eragin izan du tokiko parte-hartzeari buruzko agendan?

Lan-metodologiarako, kontzeptu hauek hartu behar dira kontuan:

- Zeharkakotasuna.
- Narratibotasuna (memoria – polifonia).
- Plangintza estrategikoa.

Gaian sakontzeko, autore hauetara jo behar da, besteak beste: A. Séller, H. Gallardo, Hepenhamer, Zemelman, Alfonso Torres.

◇ Sakoneko hausnarketa

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Munduko emakumeak Babel

Jardueraren izenburua:


Gure zuhaitzei galdetzen.

Helburua:

- Memoria historikoa elkarrekin berreskuratzea.
- Gure esperientziak ardatzari buruzko zer irakaspen ematen dituen galdetzea.

Garapena:

1. Lehenik eta behin, talde guztiak hausnarketan parte har zezan saiatu ginen. Hala, talde guztiak egin zuen bileran, 5 talde txiki egin genituen, gaiak sakontasunez lantzeko. Gutako bakoitza talde horietako batean zegoen, eta esandakoari buruzko akta jaso zuen, astelehenean gainerakoei azaltzeko. Ardatzeko elementuetatik esperientzian zehar sortutako galdera batzuei erantzun behar zien talde bakoitzak:
 - Elkarrekikotasunari eta onarpenari buruzko galderak.
 - Interes pertsonala eta maitasuna.
 - Eentzutea eta zintzotasuna.
 - Ppartaide izatea eta bestelakoak.
 - Beste galderak.
2. Egun bateko tailerlean landu genituen input horiek, berreskuratutako memoria eta aurreko saioan landutakoa erreferentzia gisa hartuta. Berreskuratutako historia gure egoitzan ikusgai jarrita zegoen, zuhaitz batzuen bidez. Zuhaitz bakoitzak gertaera garrantzitsu bat irudikatzen zuen (gure kasuan, aztertu beharreko biltzar-mota bat). Zuhaitzek osagai hauek zituzten: sustraietan, testuingurua; enborrean, parte-hartzaileak; eta adarretan, gure ardatzaren elementu bakoitzari buruzko iruzkinak.
3. Tailerlean taldeka banatu ginen, biltzar-motak irudikatzen zituzten zuhaitzei buruzko lana egiteko.
 - Galdera kritikoak landu genituen.
 - Zuhaitzetan idatzi genituen.
 - Amaitu baino 15 minutu lehenago, talde bakoitzak bere eztabaidaren lehentasunezko hiru elementuak identifikatu zituen (ardatza kontuan hartuta), ondoren besteei azaltzeko.
4. Taldeetan landutakoa gainerakoei azaldu genien.



5. Beste talde batzuk egin genituen (aurreko taldeetako bakoitzetik pertsona batekin, ahal izanez gero) eduki hauei buruzko koadro bat betetzen saiatzeko:

- Ondorioak.
- Irakaspenak.
- Gomendioak.

Lan hori egiteko, hauek erabili genituen:

- Memoria berreskuratzeko saioan landutakoa.
- Aurreko bileran emandako erantzunak.

Taldeetan landutakoa gainerakoei azaltzean agertutako “elementu garrantzitsu” batzuk eman genizkion talde bakoitzari. Hala ere, aurreko bileretan agertutako elementu batzuk azaldu zituen talde sistematizatzaileak.

6. Taldeetan landutakoa gainerakoei azaldu genien.

7. Saioaren ebaluaketa egin genuen.

Beharrezko materialak:

- ◆ Esperientziaren historia irudikatzen laguntzen duten elementuak, papera, koloretako orriak eta errotuladoreak.

Denbora:

- ◆ Talde sistematizatzaileak aurretiaz egin beharreko bi saio, bi orduko saioa talde guztiarekin eta lau orduko tailerra.



Material osagarria

- | | |
|-------------------------------------|---|
| Elkarrekikotasuna | <ul style="list-style-type: none">• Zerbait egiten dugu jende berriaren integrazioa, parte-hartze aktiboa, bultzatzeko? |
| Onarpena | <ul style="list-style-type: none">• Ekarpenak egiteko eskatzeagatik onartuago sentitzen zara taldean?• Zerk eragiten du talde batean onartua sentitzea?• Zerk oztopatzen du? |
| Interes pertsonala | <ul style="list-style-type: none">• Bileretara etorri, zer interes asetzen dituzu?• Interes pertsonalak eta taldeko interesak bateragarriak dira?• Badakigu taldearen interesak interes pertsonalen aurretik jartzen? |
| Entzutea | <ul style="list-style-type: none">• Zer elementuk laguntzen dute entzuten?• Denbora faltak eta eguneroko jarduerak bakarrik mugatzen dute entzutea? |
| Maitasuna | <ul style="list-style-type: none">• Maitasuna adierazteak hurbiltzen laguntzen duela uste duzu? |
| Zintzotasuna | <ul style="list-style-type: none">• Zeure buruari uzten diozu kritikoa eta autokritikoa izaten? |
| Partaide izateko sentimendua | <ul style="list-style-type: none">• Partaide izateko sentimenduak badu zerikusirik parte-hartzearekin? |
| Beste galdera batzuk: | <ul style="list-style-type: none">• Zer interesatzen zaigu gehiago, metodologiaren aldetik eraginkorragoak izatea ala harrera, maitasuna, hurbiltasuna, onarpena bultzatzea? Zein da gure izateko arrazoia?• Nola modera daitezke bilerak guztiok parte hartu ahal izan dezagun?• Nola eraiki da erakundearen izaera? |



5. Pausoa: Helmugak

Ondorioak, irakaspenak eta gomendioak

Sistematizazio-prozesuan gauza asko ikas ditzakegu. Gehienetan, egiten dugunari buruzko erregistroak izatearen garrantziaz konturatzen gara, antolatzeke dugun moduari buruz ikasten dugu, gai batzuei aurre egiten ikasten dugu...

Prozesuari esker, interes eta garrantzi handiagoko edo txikiagoko gaietara eta elementuei buruz hausnartzen dugu. Garrantzitsua da hausnarketa sakon hori guk geuk eta beste erakundeetako pertsonak ulertzeko moduan egitea eta formulatzea. Halaber, funtsezkoa da gure praktikak hobetzeko erabilgarria izatea. Gida honetan, proposatzen dugu hausnarketa horiek ondorioetan, irakaspenetan eta gomendioetan sailkatzea. Beraz, lagungarria dela ikusiz gero, eskema hori erabil daiteke.

Batzuetan, erabilitako formularen arabera, hausnarketa bat ondorioa, irakaspenera edo gomendioa izan daiteke. Beste batzuetan, emaitzak leku batean edo bestean kokatu beharra oztopoa izan daiteke, laguntza baino gehiago. Horrelakoetan, muinera joatea da egokiena, alegia, esperientziak esaten diguna deskribatzen eta horretatik ikasten saiatzea.

Esperientziak erakutsi digu, sistematizazio-prozesuaren bidez, lanerako agenda bat lor daitekeela (ekintza zehatzekin eta orokorrekin), ondorioak, irakaspenak eta gomendioak lortzeaz gain.

Edozein modutan, aholku batzuk emango ditugu gure jarraibideei jarraitu nahi dieten abenturazale zailduentzat.

Ondorioak

- ◆ Izaera orokorreko hausnarketak egin behar dira, esperientzia zehatzetik pixka bat haratago doazenak. Alegia, gure hausnarketan pauso bat gehiago eman behar dugu, eta, galdera kritikoei erantzun ondoren, beste elkarte batzuei ere aplikatu dakizkiekeen erreferentziak egin behar ditugu.

Irakaspenak

- ◆ Esperientzia guztietatik ikas daiteke. Horregatik, gure esperientziari buruzko galdera hau egin behar dugu: zer ikasi dugu? Irakaspen horiek hainbat motatakoak izan daitezke: batzuetan, gure esperientziari bakarrik aplikatu dakizkiekeen gauza praktikoak ikasiko ditugu, eta, beste batzuetan, irakaspen horiek orokortu, eta antzeko beste esperientzia batzuetan aplikatu ahal izango ditugu.

Gomendioak

- ◆ Esperientzia aztertuz, beste pertsona eta erakunde batzuei egingo genizkiekeen gomendioak identifikatzen ditugu. Gomendio horiek egiteko, galdera honi erantzun diezaiokegu: zer gomendatuko zenieke antzeko esperientzia izan duten pertsona eta erakundeei?

Iruzkinak

Prozesutik ateratako baieztapen nagusiak dira.

Baieztapen teorikoak edo praktikoak izan daitezke.

Baieztapen horiek irakaspen berriak ateratzeko abiapuntu izan behar dute.

Zalantzak edo kezka berriak izan daitezke. Sistematizazio eta praktika berriak edo lanerako agenda berriak sor ditzakete gure erakundean.

Eragin eta garrantzi handiagoko edo txikiagoko hausnarketak dira.

Esperientzia erabili zuen erakundeak:

Bidegintza Elkarteak

Jardueraren izenburua:

Ordurako, elkarrekin gogoratu, aztertu, eztabaidatu eta interpretatu genuen. Hori guztia papelografoetan, eskemetan, aktetan, argazkietan... jaso genuen.

Orduan, hori guztia modu erraz eta logikoan ordenatu beharra zegoen, talderen batek antzeko proiekturen bat martxan jartzeko asmoa bazuen, gure esperientzia balia zezan.

Helburua:

- Sakoneko hausnarketan aurreratutako eta aztertutako guztia jasotzea.
- Material hori ordenatzea.
- Erraz ulertzeko eta azaltzeko moduan adieraztea (edukien aldetik batez ere, ez hainbeste formaren aldetik).
- Ezagutza “eraikitzea”.

Garapena:

1. Parte-hartzaileek adierazitako ideiak idazteaz arduratu zen pertsonak papelografo bat egin zuen gure sakoneko hausnarketa ordenatzeko identifikatu genituen bost gaietako bakoitzeko. Paper bakoitzean zegokion multzoaren izena idatzi zuen, eta leku bat utzi zuen hiru koloreekin ondorioak, irakaspenak eta gomendioak idazteko.
2. Ondoren, material guztiak mahai gainean (argazkiak, aktak, eskemak...) eta paretan (papelgrafoak, eskemak...) jarri genituen, eta, ideia-jasa baten bidez, egindako lan guztia sakontzen eta errepasatzen joan ginen, ondorioak, irakaspenak edo gomendioak ateratzeko.
3. Papelografoak banaka landu genituen, ez nahasteko. Hala ere, batzuetan, bukatutzat genuen papelografo batera itzuli behar izan genuen, abardurak egiteko edo gauzak gehitzeko.
4. Ez zen lan erraza izan ondorio, irakaspen eta gomendioen arteko mugei eustea. Horregatik, bilera horretan, beharrezkoa izan zen bi bideratzaileen laguntza, beste behin ere. Izan ere, bideratzaileek sistematizazio-prozesua kanpoagotik bizi izan zuten, ordura arte landutakoa distantzia handiagorekin balora zezaketen. Hala, ordenari eusten eta eskematikoak eta eraginkorrak izaten lagundu ziguten, betiere guk egindakoa beste pertsona eta erakunde batzuentzat baliagarria izan zedin landuz.
5. Ekarpen guztiak papelografoetan jasotzeaz arduratu zen pertsonak konpromisoa hartu zuen egindako guztia garbira pasatzeko.
6. Handik astebetera, beste bilera bat egin genuen, parte-hartzaile guztien artean papelografoak adosteko.





Beharrezko materialak:

- ◆ Landutako material guztia (papelografoak, eskemak, aktak, argazkiak...).
- ◆ Prozesuan landutako gaien arabera banatutako bost multzoetako bakoitzeko ("indar-ideiak" deitzen genien) papelografo bat.
- ◆ Koloretako errotuladoreak.

Denbora:

- ◆ Hiru orduko bilera papelografoak betetzeko.
- ◆ Bi ordu dena garbira pasatzeko.
- ◆ Bi orduko bilera, parte hartu zuten pertsona eta erakunde guztien artean, landutakoa gainerakoei jakinarazteko eta adosteko.



Material osagarria

Esperientzia honetako parte-hartzea (ardatza) errazten edo oztopatzen duen elementu gisa aztertutako alderdi bati buruzko ondorioak, irakaspenak eta gomendioak.

1. Erakunde eragileen parte-hartzearen mailak

Ondorioak

Erakunde eragileak hain desberdinak izanik, parte-hartzeak ere era askotakoa izan behar zuen, halaberharrez. Hala eta guztiz ere, desberdintasun horiek modu positiboan hartu ditugu, hau da, elkarren osagarri gisa, eta ez oztopo gisa. Hala, erakunde bakoitzak egiten dakien horretan parte hartu du, bere esparruari eta funtzionatzeko esperientziari eutsiz. Hasiera-hasieratik, ez dugu aha-lerinik egin parte hartu duten erakundeak aldatzeko edo behartzeko, eta horrek asko lagundu dio esperientziari.

Dena den, erakunde handienek tentsio-unereren bat (baina ez gatazkatsua) sortu dute parte-hartzearen maila dela eta. Izan ere, borondatezko bi erakundeek (Jatorrak eta Biharko Gazteak) oso gutxi parte hartu dute.

Bestalde, bi erakunde profesionalizatuek (Bidegintza eta EDE Fundazioa) modu desberdinean –bakoitzak jarraitzen duen helburuaren arabera– bizi izan dute parte-hartze eskas hori. Hala, baliabide berri bat martxan jartzea zen EDE Fundazioaren azken helburua. Horregatik, parte-hartzearen desoreka horrek ez dio zailtasunik sortu, eta egoerara egokitu da. Bidegintza elkarteak, berriz, lotura handia du lurraldearekin eta onuradunekin, eta gauzak “modu jakin batean” egin daitezzen zain- tzea izan da beti haren zeregin nagusia. Hori dela eta, borondatezko elkarteen parte- hartzearen/inplikazioaren maila jakin bat lortzen saiatu da.

Irakaspenak

Beraz, une zailak bizi izan dira prozesuan, ez baita erraza izan oreka bilatzea erakunde bakoitzaren izaeraren eta proiektuak aurrera egiteko behar zen inplikazio-mailaren artean.

Lasaitasunez onartu behar izan dugu prozesu oro fluktuatzailea dela, eta, beraz, parte-hartzearen eta inplikazioaren maila, sare gisa ulertzen duguna, denborarekin aldatuz joaten dela.

Parte hartzeko hainbat modu daude, eta guztiak dira onak eta onargarriak. Adibidez, Bihotzean auzotarren elkartea laguntzeko prest agertu zen une oro, eta, aldizka, UK proiektuaren garapena-

ren berri jasotzen zuen, prozesuan zuzenean parte hartu ez bazuen ere. Parte hartzeko beste modu bat da, baina modu baikorreetan bizi izan zen; agian, parte-hartzearen oinarriak hasieratik definitu zirelako izango zen.

Gomendioak

Egoera horren aurrean, prozesuaren une edo fase bakoitzean, erakundee-tako batek modu esplizituan hartu behar du liderraren papera, eta prozesua-ri eta gainerako erakundeei bultzada bat emateaz arduratu behar du, hala, prozesua argitu eta aurrera egin ahal izateko.

Beraz, erakunde bakoitzak duen izaeraren eta prozesuan egin dezakeena-ren arabera abiatu behar da prozesua. Borondatezko erakundeen ekarpe-nak ere kontuan hartu behar dira, eta denbora eman behar zaie, prozesutik kanpo gera ez daitezten. Izan ere, erakunde horiek laguntza handiagoa behar izaten dute parte hartzeko eta inplikatzeko.

Helmugak

Esperientzia erabili zuen erakunde:

Munduko Emakumeak Babel

Jardueraren izenburua:

Irakaspenak eta gomendioak berreskuratzen.

Helburua:

- Esperientziak utzitako irakaspen, gomendio eta ondorioak era adostuan formulatzea.

Garapena:

1. Hasteko, esperientziaren irakaspenak sailkatzeko elementuak definitu genituen elkarrekin. Honela definitu genituen:

Ondorioak: esperientzia aztertzean sortzen den lehenengo erantzuna da, izaera orokorrekoa eta ezarritako ardatzarekin lotura duena.

Irakaspenak: esperientziatik ateratako ondorioak modu sakonagoan aztertzean lortzen dira.

Gomendioak: gure erakundearentzat balio duten zehaztapenak eta beste erakunde batzuekin parteka ditzakegun orokortasunak dira.

2. Ondoren, galdera kritikoekin egindako tailerraren emaitzak oinarritzat hartuta, sistematizazio-prozesuaren ondorioak ateratzen joan ginen.

3. Gero, ondorio, irakaspen... horiek ordenatzen saiatu ginen, eta ardatzaren elementu bakoitzarekin lotu genituen. Hala, ondorioak, irakaspenak eta gomendioak sailkatu genituen, aurretik definitu genuen bezala.

4. Hainbat saio egin genituen lehenengo sailkapenari buruz eztabaidatzeko, eta prozesuan zehar atera ziren eta agertu ez ziren gauzei buruz pentsatu genuen.

5. Ondoren, informazio hori jasoko zuen dokumentua adostu genuen.

Beharrezko materialak:

- ◆ Papera, boligrafoa, ordenagailua eta proiektagailua, adostutako lana errazago egiteko, eta pazientzia handia.

Denbora:

- ◆ Talde eragilearen hainbat saio. Lortu nahi den zehaztasun- eta adostasun-mailaren baitan dago saio-kopurua.

Material osagarria

Hasieran ideiak ondorio, irakaspen eta gomendio gisa nola sailkatu genituen agertzen da ondorengo taulan:

Ondorioak	Irakaspenak	Gomendioak
Elkartearen izateko arrazoia eta antolaketa		
<ul style="list-style-type: none"> • Derrigortzen ez bada, konpromisoa lortzen da. • Bere buruari begira lan egiten duen erakundea da, ez du kanpoko jendea erakartzen (orain). • Hainbat parte-hartze mota daude: tailerrak eta batzarra. • Munduko Emakumeak elkarteak militantzia bikoitza ahalbideratzen du: ez da gunea "ideologizatua", ez dago dogmatismorik eta sortzailea eta askea da. • Dena batzarretan erabakitzeari esker, onartuak sentitzen gara. • Gidaritza-mota asko daude (protagonista, proselitista ez dena, eta ekimena duena). • Erraza da Munduko Emakumeak elkartekoa izatea, eta emaitza onak ematen ditu. • Ez dago aurretiazko prozesurik edo betebeharririk. • Gure izateko arrazoia batzarrean definitzen da. • Errealizatzeko, ahalduzko, modu bat da, eta mugarik gabeko pertsonak gara, hausnarketaren eta norberaren ezaugarrien balioak aitortzen dituztenak. • "Kanpokoari" buruzko estereotipoak kentzeko bitartekoa da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpora ateratzeko beharra, beste batzuentzat eta beste batzuekin jarduera gehiago egiteko beharra. • Batzuetan, ez gaude prest eztabaidatzeko, baina metodologiak eta estiloak laguntzen du horretan. • Garrantzitsua da jendea etengabe parte hartzera bultzatzea. • Barnera begira, Munduko Emakumeak taldeko partaide sentitzen naiz, erakundera etortzen naizelako, ondo sentitzen naizelako eta batzarrean parte hartzen dudalako. Kanpora begira (Munduko Emakumeak taldetik kanpo, baina haren izenean), partaide sentitzen naiz, taldean integratzen noan eran. Kanpoan Munduko Emakumeak taldea ordezkatzeko dudanean ere erantzukizun hori hartzen dut. Bi fase dira, atzean heltze-prozesu bat dutenak. Eta, batzarretara joan ez arren, taldea ordezkari dezaket kanpoan. Azken horrek alde positiboa eta negatiboa ditu. • Emakumeok gure izaeratik eta emakumeen kolektibo gisa ditugun beharretatik abiatuta elkartzeko bide gisa eraiki da elkarteak. Emakumeen konplizitatea zailtasunetan, zoriontasunean eta utopian. 	<ul style="list-style-type: none"> • Metodologia asanblearioa behar da, eta, hasieratik, ez du protokolo handirik egon behar. <p><i>Batzarraren antolaketa</i></p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Batzarrera joaten direnek beren buruak aurkeztea. Jende berriari aurkezpen zabalagoa egitea. 2. Intereseko gaiak astelehen horretako bertako gai-zerrendan sartu ahal izatea. 3. Asteroko maiztasunak parte-hartzaileen arteko harremanak eta elkarreraginak indartzen, motibatzen eta errazten ditu. 4. Batzarraren agenda (gai-zerrenda) izateak taldearen harremanak errazten eta motibatzen ditu, pertsona bakoitzaren parte-hartzea eta ahalduzkoa bultzatzen duelako. 5. Hitza hartzeko txanda erabiltzeko eskubidea izan behar dute denek. 6. Parte-hartzaile guztiek dute botoa emateko eskubidea, bereizketarik egin gabe. <p>Batzarraren eta elkartearen jardueraren zeharkako elementuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Irekitasuna – entzutea komunikazioa – enpatia Elkar ulertzea – errespetua Zintotasuna - afektibitatea <p>Hausnarketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Geratzeko, autokritika egiteko eta erakunde gisa hausnartzeko gunea eduki behar da, Munduko Emakumeak erakundeak erakunde gisa beste pauso bat emateko. • Garrantzitsua da elkartearen izaerarekin autokritikoak izatea. Hausnarketaren erdian jarri behar da gai hori, beste etapa batzuk sortzeko. Erakundearen parte gisa hartu behar da autokritika. • Moderazio-lanak txandakakoa eta kolektiboa izan behar du. Moderatzaileak eta gainerakoek ahalegina egin behar dute hori horrela izan dadin.

6. Pausoa: Gure irakaspenak komunikatzen

Ikasitakoa zabaltzen

Abentura oro bezala, sistematizazioa joan-etorriko prozesua da. Abiapuntura itzultzen gara beti, baina beste modu batean, pertsonak aldatu egin direlako eta itzultzen garen lekua ere aldatu egin delako. Bide horretan, hainbat esperientzia bizi izan ditugu, eta irakaspen eta ezagutza berriak sortu dira. Eta, abenturazale orok bezala, hori guztia inguratzen gaituztenei eta ezagutzen ez ditugun pertsoneri komunikatzeko beharra sentitzen dugu.

Sistematizazioarekin ere antzeko zerbait gertatzen da. Izan ere, elkar hobeto ezagutzen, egindako lana aitortzen eta lan horretatik ikasten laguntzen digun prozesu luzea da. Prozesuan pertsona askok hartu dute parte, eta garrantzitsua da pertsona horiei egindako ahaleginen emaitzak itzultzea. Eta, aldi berean, gainerako pertsonak eta erakundeek ere merezi dute gure praktikak ezagutzea eta horietatik ikastea.

Horregatik, eta ezagutza partekatuak aukera berriak sortzen dituela uste dugulako, garrantzitsua da sistematizazioaren emaitzak ezagutaraztea.

Gerta liteke komunikazio hori desberdina izatea erakundearen barruan edo kanpoan egiten denean. Esparru bakoitzean esperientziaren alderdi desberdinak komunika daitezkeen bezala, komunikatzeko modua ere izan daiteke desberdina. Bi maila horietan, partekatzearen garrantziaz eta aberastasunaz jabetuko gara, eta horrek atzeraelikadura sortuko du. Sistematizazioaren dimentsio solidarioaz ari gara.

Barnera begira, sistematizazioarekin egindako aurrerapenak jakinarazten ditugunean, lorpen hauek egiten ditugu:

- ◆ Erakundearen barruko parte-hartzea erraztea, kohesioa.
- ◆ Pertsona guztietara irekitzea.
- ◆ Atzeraelikatzea.
- ◆ Gure erakundeari sistematizazioaren berri ematea.

Komunikazio hori etengabe egitea komeni da, buletinaren eta tailerren bidez, erakundearen egunerokotasunaren barruko beste une batzuk baliatuz... Adi egon behar dugu bide formalak nahiz informalak erabiltzeko. Kasu horietan guztietan da garrantzitsua komunikazioa.

Kanpora begira, sistematizazioaren emaitzak jakinarazten ditugunean, lorpen hauek egiten ditugu:

- ◆ Gure esperientzia, hausnarketa, irakaspenak, gomendioak... beste erakundeetara zabaltzea eta haiekin partekatzea.
- ◆ Geure burua indartzea eta ezagutaraztea.
- ◆ Hirugarrenei irakaspenak ematea.


Sistematizazioaren esperientzia komunikatzeko, bide hauek erabil daitezke, adibidez: argitalpenak (sistematizazio-prozesu guztiari edo zati bati buruzkoak), prestakuntza-tailerrak edo -ikastaroak, material didaktikoak, bisiten trukeak, ikus-entzunezko materialak (filmak, muntaiak...), liburuxkak, kartelak, kale-antzerkia...

Edonola ere, sistematizazioa egin duen erakundeak erabaki behar du zer eta nola komunikatu.




Gomendioak


- ◆ Esperientziaren irakaspenak berriz komunikagarri bihurtzea.
- ◆ Hainbat komunikazio-produktu sortzea.
- ◆ Esperientzian parte hartu duten pertsonekin eta hirugarren pertsona eta erakundeekin emaitzak partekatzea.
- ◆ Forma desberdinak eta sortzaileak erabiltzea.




Iruzkinak




Zehaztapen praktikoak eta etikoak izan behar dira kontuan.




Helburuak mugatzen du komunikazioa. Interesgarriena komunikatzea da, eztabaidatzen jarraitzeko.



Erabilgarria eta komunikagarria izan dadila.



Ez da jende guztiari galdeketa egin behar proposamen osoak balioa izateko. Oreekak bilatu behar dira (zirriborro bat zabaldu jendeak iruzkinak egin ditzan...). Hobe da hainbat irtenbide, "produktu"... proposatzea, eztabaidan sartzeko (agian, ez dago bigarren produkturik, baina lehenean sartuko da sortu duen eztabaida).



Prozesuan parte hartu duten pertsona guztiei komunikatu behar zaizkie prozesuaren emaitzak.

◇ Gure irakaspenak komunikatzen

Esperientzia erabili zuen erakundeak:

Munduko Emakumeak Babel

Jardueraren izenburua:

Festa.

Helburua:

- Prozesuan ateratako ondorioak, irakaspenak eta gomendioak partekatzea.
- Lanaren emaitzak aurkeztea.
- Elkarrekin egindako lana ospat-

Garapena:

1. Bi bilera egingo dira, eta, horietan, batetik, sistematizazio-prozesuan ateratako ondorioak, irakaspenak eta gomendioak partekatzen saiatuko gara eta, bestetik, alderdi garrantzitsuenak identifikatuko ditugu, ondoren mintegietan alderdi horiek beste emakume batzuekin partekatzeko. Bide batez, jardunaldi horietara gonbidatuta gaude.

Talde sistematizataileak aurkezpena egingo du, eta, ondoren, gainerako emakumeek beren iritziak emango dituzte.

2. Horrez gain, bigarren bileran, egun bat zehaztuko da festa bat egiteko. Festa horretan, gure memoriarekin egindako argitalpena, elkarrekin egindako lana alegia, aurkez daiteke, poztasun handiz.

Festa hori prestatzeko batzordea osatuko da, eta, horrez gain, elkarteko emakumeen trebetasun artistikoek eta sukaldaritzako abileziekin ere lekua izango dute.

Beharrezko materialak:

- ◆ Sistematizazioari buruzko argitalpena.
- ◆ Papelografoa eta errotuladoreak.

Denbora:

- ◆ Ordubeteko bi saio eta bi ordu inguruko festa.

◇ Gure irakaspenak komunikatzen

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Esperientzia guztietan

Jardueraren izenburua:

Azken dokumentua.

Helburua:

- Sistematizazio-prozesua eta prozesu horrek sortutako irakaspenak dokumentu batean jasotzea.

Garapena:

1. Sistematizazio-prozesuan egindako ekintza eta jarduera guztiak jasotzen dira: bilera-aktak, tailerren memoriak...
2. Egingo den dokumentuaren eskema zehazten da, kontuan izanik landutako esperientzia agian ezagutuko ez duten erakundeentzat dela dokumentua. Beraz, egindakoa modu sinplean adierazten saiatu behar da, esperientzia landu duen erakundea ezagutuko dutela pentsatu gabe.
3. Azaldu nahi diren ideiak taldean adosten dira, eta, hainbat lan-saioren bidez, argitalpenaren zirriborroak berrikusten dira.
4. Dokumentua argitaratzen da, eta interesa duten pertsoneri eta erakundeei banatzen zaie.

Beharrezko materialak:

- ◆ Papera eta boligrafoak. Ahal izanez gero, ordenagailua eta proiektagailua, dokumentua adosten joateko. Eta pazientzia handia.


Denbora:

- ◆ Dokumentua berrikusteko, hainbat lan-saio (gutxienez bat). Gehienezko lan-saio kopurua zehaztea ere komeni da.

Material osagarria

Gure esperientzien argitalpen guztietan betetzen saiatu garen eskema aurkezten dugu, eranskin modura.

1.	Aurkezpena Antolaketa Testuingurua	3 orrialde
2.	Sistematizazioaren zergatia eta helburua Erabilitako metodologia	3 orrialde
3.	Esperientziaren kontaketa	9 orrialde
4.	Herritarren parte-hartzeari buruzko irakaspenak Parte-hartzeari egindako ekarpenak	14 orrialde
5.	Ondorioak	1 orrialde



7. Pausoa: Ezagutza osatu eta lantzea

Eztabaidatzen eta berrikasten

Prozesuaren barne-logika ulertzen dugunean eta gertatutakoari buruzko irakaspen baliotsua ateratzen dugunean sistematizazio-prozesua amaitzen da. Eta, irakaspen horrek ezagutza sortu beharko luke, alor horretan pauso berriak ematen laguntzeko.

Beraz, ondorengo ekintzak eta esku-hartzeak egiteko irakaspen gisa formulatu beharko lirateke sistematizazio-prozesuaren ondorioak. Halaber, ondorioak ateratzean orokortu daitezkeen irakaspenak ere zehaztu beharko lirateke, batetik, gure esperientziarekin ikasi duguna antzeko esperientzietan ere baliagarri izateko eta, bestetik, gure praktiketatik abiatuta politika zehatzak formulatzeko edo teoria eta kontzeptuak birformulatzeko edo, gutxienez, ideien garapen teorikorako zalantza eta galdera berriak sortzeko.

Argitalpen honen oinarrian dagoen proiektuaren kasuan, herritarren parte-hartzeari buruzko esperientziak sistematizatzearen bidez, esperientzia bakoitzetik ateratako irakaspenak partekatzen ditugu, esperientzien arteko elementu komunak ikusten ditugu, antzeko kezkek identifikatzen ditugu... Eta, horrez gain, gai hori are gehiago sakontzen laguntzen digu parte-hartzearen arloko teorialariek eztabaidatzeak.

Hala, prozesuaren une honetan, praktika aztertu eta kritikoki aztertzeak harago jo ahal izango dugu, eta praktika hori aberastu, partekatu eta ezagutza berriak sortu ahal izango ditugu.

◇ Ezagutza osatu eta lantzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

AMOR, Copevisa eta Escuela Popular de Neiva

Jardueraren izenburua:

Hausnarketarako tailer nazionala.

Helburua:

- Hausnarketa-prozesuaren irakaspenak partekatzea.
- Beste esperientzia batzuekin eta teoriarekin alderatzea.
- Gai batzuk sakontzea.
- Orain arte lortutako irakaspenak berrikustea.

Garapena:

1. Sistematizatutako esperientzien kontaktaren zirriborrotik abiatu ginen. Zirriborro horrekin, bilera bat egin genuen sistematizazio-prozesuan parte hartzen ari ziren talde kolonbiarreko beste taldeekin.
2. Esperientzia bakoitzean sakondu beharreko arazo nagusiak identifikatu genituen.
3. Talde bideratzaileak hainbat artikulu eta dokumentu interesgarri eman zizkigun, teoriaren bidez arazo horiek sakontzen laguntzeko.
4. Artikulu horietan irakurritakoa eta esperientzia oinarri hartuta, gai garrantzitsu horiei buruz hausnartu genuen elkarrekin.
5. Egindako ekarpenekin, jatorrizko taldera itzuli ginen irakaspenak, ondorioak... alderatzeko eta birformulatzeko, tailerrean egindako lana kontuan hartuta.

Beharrezko materialak:

- ◆ Intereseko dokumentuak/artikuluak.

Denbora:

- ◆ Bi egun.

◇ Ezagutza osatu eta lantzea

Esperientzia erabili zuen erakundea:

Herritarren parte-hartzeari buruzko esperientzien sistematizazioa

Jardueraren izenburua:

Nazioarteko mintegia.

Helburua:

- Gure sistematizazio-prozesuak eta parte-hartzeari buruzko hausnarketak partekatzea.
- Elementu komunak, zailtasunak eta erronkak identifikatzea.
- Gure erakundeentzat agenda berriak eta teoriarientzat

Garapena:


1. Esperientzia guztiak sistematizatzen lan egin ondoren, erakunde guztiak mintegi batean biltzen dira, esperientziak partekatzeko.
2. Mintegia bi zatitan banatzen da:
 - a. Barne-mailako lana:
 - I. Elkarri sistematizazio-prozesua azaldu, eta, taldeka, elementu komunak, zailtasunak eta erronkak identifikatzen saiatzen dira. Erakunde bakoitzaren sistematizazio-prozesua pasilloko panel batzuetan jartzen da ikusgai, beste erakundeetako kideek eta azkeneko egunean etorriko diren kanpoko erakundeetakoek ikus ditzaten.
 - II. Taldeetan hausnartutakoa batera jartzen da, eta guztien artean eztabaidatzen da, erakunde bideratzaileen laguntzarekin.
 - III. Parte-hartzearekin ere antzeko zerbait egitea proposatzen da. Antzeko lan-esparruak dituzten taldeak banatzen dira: parte-hartzea eta generoa; parte-hartzea eta komunitate-garapena; eta parte-hartzea eta presio politikoa. Talde horiek elementu komunak, zailtasunak eta erronkak identifikatzen saiatzen dira.
 - IV. Taldeetan hausnartutakoa gainerakoei azaltzen zaie, eta guztien artean eztabaidatzen da, erakunde bideratzaileen laguntzarekin.
 - b. Kanpora begira egindako lana
 - I. Parte-hartzeari buruz egindako hausnarketak beste erakunde eta pertsona interesatu batzuekin partekatzen dira, eta esperientzietan parte hartu ez duten pertsonekin hainbat gai sakontzen dira, berriz ere.

Beharrezko materialak:

- ◆ Esperientziak aurkezteko panelak.
- ◆ Kanpoko jardunaldirako publizitatea.

Denbora:

- ◆ Bi eguneko barne-mintegia eta goiz bateko mintegi irekia.



5. Gure abentura berezitik ateratako hausnarketa eta irakaspen batzuk

Sistematizazio-prozesuan parte hartu duten erakundeek bizi izandako esperientziaren funtsezko elementu, ahalmen eta zailtasun batzuk berreskuratu nahi genituzke.

Erakunde guztiak pozik daude prozesuarekin, parte hartu duten pertsonen ahalegin handia egitea eskatu dien arren. Esperientziari esker, talde arduradunek lorpen hauek egin dituzte, besteak beste: taldeen parte-hartzea motibatuzko jarduerak egitea, esperientziaren memoria berreraikitzea eta gai garrantzitsuak aztertu eta interpretatzea. Horretarako, lan-bilerak, tailerrak eta parte-hartze handiko ekitaldiak egin dituzte. Hala ere, abentura orok bezala, honek ere izan ditu bere argi-ilunak. Orain azalduko ditugu, jakinik merezi duela edozein abentura bizitzea.

a. Zailtasunak

Prozesuaren fase guztietan ez da izan **motibazio eta parte-hartze** bera. Historiaren berreraikitze kolektiboa bildu du jende gehien, hainbat arrazoigatik: kasu guztietan erabilitako metodologia sortzaileagatik, hainbat une gogoratzeko aukera emateagatik eta ahozkotasanaren nagusitasunagatik. Itzultze partzialeri esker, pertsona gehiagotara heldu ahal izan da, esperientziari buruzko hainbat ikuspegi jaso dira, egindako bidea baloratu da eta prozesuak barneratu dira. Azterketa analitikoaren eta interpretazio kritikoaren fasean, ordea, talde txiki batek hartu du parte, eta arduradunak bakarrik egon dira azken dokumentua idazteko unean.

Halaber, pauso bakoitza emateko erabilitako **denbora** ez da orekatua izan. Memoria berreskuratzeko eta berreraikitze kolektiboko lanean asko luzatu gara, besteak beste, lan hori egiteko motibazio handiagatik. Hala, interpretazio kritikoa eta dokumentua arinago egin behar izan ditugu, eta fase horretan egindakoa ezin izan dugu egiaztatu memoria berreraikitze fasean parte hartu zutenekin.

Informazioa biltzeari ekin diogunean, egiaztatu dugu informazio idatzia eta ikonografikoa (argazkiak, bideoak...) oso eskasak zirela, antolatu gabe zeudela eta, kasu batzuetan, galdu egin zirela. Hala, esperientzia erregistratzearen eta artxiboak baloratzearen garrantziaz ohartu gara.

Kasu batzuetan, arazoak izan ditugu pertsona garrantzitsuengana iristeko. Beste batzuetan, lehenaldia mitifikatzeak edo bertsio bakar bat egoteko nahiak oztupoak sortu ditu.

Prozesua aurrera eramateko **baldintzei** dagokienez, prozesuari nahiz esperientziei buruzko aholkularitza- eta bideratze-lanak egin dituzten erakundeek lehendik zuten dinamikaren eta konpromisoen barruan hartu dute sistematizazio-lana. Hala, proposamena egin zuten erakundeen laguntza izan arren, ezin zituzten utzi aurre-

tik hartuta zeuzkaten ardurak. Denbora gutxi izan dute prozesua aurrera eramateko, eta baldintza pertsonalak ez dira behar bezain onak izan kasu batzuetan.

Irakurketa eta idazketa. Ikerketa-lana egin behar denez, irakurketak eta idazketak garrantzi handia dute. Erakunde- eta antolaketa-kulturaren barruan, ikerketa ez zen hartzen lanaren partetzat, eta horregatik, zailtasun handiak izan dira testu teorikoak bildutako informazioarekin lotzeko, narrazio-testutik testu analitikora pasatzeko eta sistematizazioaren ondoren egindako dokumentutik argitaratzeko dokumentura pasatzeko.

b. Ahalmenak

Parte-hartzaileek prestakuntzari eta bilguneari eman diote balio handiena. Sistematizazio-prozesuak konfiantzazko jarrera sortu du gure aukeren gainean, eta ekintzarako ikerketa egiteko elementuak eman ditu. Halaber, sistematizazio-prozesuak hainbat osagai eman ditu informazioa aztertzeko, ikuspegi bat kolektiboki eraikitzeko, norberaren esperientziari buruz testuak irakurtzeko eta idazteko eta, azkenik, proposamen metodologiko orokorra eta lan konkretua esperientzian barneratzeko. Alde horretatik, kanpoko bideratzaileek lan garrantzitsua egin dute autokonplazentzian ez erortzeko.

Bestalde, subjektuarterko bilgune eta elkarrizketagune gisa, sistematizazio-prozesuak aukera eman du esperientzia bereko pertsonak biltzeko. Bilgune horretan, une ederrak nahiz zailak ekarri dituzte gogora: hainbat pertsona garrantzitsu gogoratu dituzte eta praktika hausnarketa-gai bihurtu dute. Kasu batzuetan, belaunaldien arteko aldeak nabaritu dira gaur egungo egoera ulertzeko, prozesua baloratzeko eta akatsak aitortzeko moduan.

Hainbat esperientzia batera jartzea ere baloratu da. Izan ere, norberak bere esperientzia azaldu eta besteekin alderatu ahal izan du, lortutako irakaspenak zalantzan jarri eta osatu ahal izan ditu eta norberak bere prozesua atzeraelikatu ahal izan du. Gainera, modu informalean hitz egin dute, umoretsu eta hainbat pasadizo kontatuz.

Sistematizazioari esker, batetik, **ikerketa-arloko prestakuntzaren hutsuneak eta praktikari buruzko hausnarketa falta aitortu dituzte**, eta sistematizazioa proiektuetan barneratzearen garrantziaz ohartu dira, eta, beste aldetik, uste sendoak, konpromisoak eta ametsak banatu ahal izan dituzte.

Sistematizazio-prozesu batek izan dezakeen beste ahalmenetako bat da **malgutasuna**. Esperientzia eta erakunde guztiekin antzeko eskema betetzen saiatu arren, erakundearen sormenak, aurretiazko esperientziek, denborak, erakundearen dinamikak eta publikoak hainbat egokitzapen egitea eskatzen dute. Aberastasun eta sormen horrek lagundu du esperientzia gehiago partekatzen eta horietatik gehiago ikasten.

Esperientzian parte hartu duten erakundeen helbideak

ALBOAN

Padre Lojendio 2, 2º • 48008 Bilbao
Tel.: 94 415 11 35 • Faxa: 94 416 19 38
www.alboan.org

Asociación de Mujeres del Oriente (AMOR)

Carrera 54, nº 56 - 17 Apto. 101
Altos de la Mosca • Rionegro - Antioquia
Colombia

Bidegintza Elkarte

Encarnación 6, bajo • 48006 Bilbao
Tel.: 94 432 91 23 • Faxa 94 432 02 06
www.bidegintza.org

Bizkaiko Caritas

Ribera 8 • 48005 Bilbao
Tel.: 94 402 00 99 • Faxa 94 402 00 98
www.caritasbi.org

Centro de Estudios y Publicaciones Alforja

San Pedro Montes de Oca
100 metros sur y 175 metros este
del Banco Nacional de Costa Rica
Apartado postal 369 - 1000 San José • Costa Rica
Tel.: 506 280-6540
www.alforja.or.cr/centros/cep

Copevisa kooperatiba

Calle 41 No. 13-41 • Bogotá - Colombia
Tel.: 245 31 46 • 340 54 55 • Fax. 245 77 45

Dimensión Educativa

Calle 41 No. 13-41 • Bogotá - Colombia
Tel.: 245 31 46 • 340 54 55 • Fax. 245 77 45
www.dimensioneducativa.org.co/

Escuela Popular de Neiva

Escuela Popular Claretiana
Avenida 42, nº 14A - 28 Apto. 405
Bogotá - Colombia

Elhuyar Aholkularitza

Zelai Haundi 3 • 20170 Usurbil
(Osianalde industrialdea)
Tel.: 943 372 052 • Faxa 943 363 144
www.elhuyar.com

Iniciativas de Cooperación y Desarrollo

Gordóniz 44, 10º - oficina 8 • 48002 Bilbao
Tel.: 94 410 10 05
www.iniciativasdecooperacionydesarrollo.com

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua

Universidad de Deusto
Avda. Lehendakari Agirre, 24 • 48080 Bilbao
Tel.: 94 413 91 02 • Faxa 94 413 92 82
www.idh.deusto.es

Hegoa

Zubiria Etxea
Avda. Lehendakari Agirre, 83 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa 94 601 70 40
www.hegoa.ehu.es

Kolectivo el Parke

Plaza Poeta Miguel Hernández • 46910 Alfafar - Valencia
Tel. eta Faxa: 96 376 07 90

Munduko Emakumeak Babel

Fica 5 • 48006 Bilbao
Tel.: 94 400 54 17
www.es.geocities.com/mujeresbabel

Proiektua osatzeko materialak

Sistematizazio-gida

ALBOAN, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Hegoa. "Sistematizazioa: begiratu berri bat gure praktikei. Gizarte-aldaketari buruzko esperientziak sistematizatzeko gida", Bilbo, 2004.

Esperientzien sistematizazioa:

Asociación Regional de Mujeres del Oriente (AMOR): *Una fuerza multicolor. Organización y participación de las mujeres*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Asociación Bidegintza Elkartea, *Sistematización Umeak Klean*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Caritas Bizkaia, *¿Dónde está la llave?* Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

CEP-Alforja: *Sistematización de experiencias de participación ciudadana y empoderamiento de las mujeres*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

CEP- Alforja: *Sistematización de experiencias de participación ciudadana en Costa Rica*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Colectivos del Parke: *La cooperativa que marca la historia*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Copevisa kooperatiba: *Sistematización de la experiencia de participación de la cooperativa Copevisa en la localidad de Usaquén*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Elhuyar Aholkularitza. *Euskara Planak: Nondik gatoz, non gaude eta nora goaz*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Escuela popular claretiana: *Pedagogía de la participación en la escuela*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Mujeres del Mundo - Munduko Emakumeak Babel, *Abanico de colores. Mujeres del Mundo: sistematizando aprendemos*. Editorial Alberdania, Zarauz, 2006.

Beste argitalpen batzuk

AAVV, Participación ciudadana y sistematización de experiencias. Bilbo, 2006.

Informazio gehiago:

www.alboan.org/sistematización